


Jendartea eta ekonomia uztarutz: Sozioekonomia idatziak

Beñat Irasuegi

Jendartea eta ekonomia uztartuz eraldaketarako bideak lantzea izan da azken urteetako nire motibazioa. Olatukoop I. Udako eskola dela eta zenbait artikulu aukeratu eta bildu ditut. Gaika sailkatzen saiatu banaiz ere, askok gai ezberdinekin dute zerikusia. Udaraz zer irakurri ez badakizu beharbada horrelako batzuk interesgarri egingo zaizkizu, hori da helburua behintzat.



Aurkibidea

Ekonomia Sozial Eraldatzailea:	3
Enpresa baten gardentasunak bere balio positiboak nabarmentzen ditu	4
Oinarrizkoa da eredu eraldatzailean lan egiten dugun enpresa...	4
Ekintzailletza:	8
Ekintzailletza soziala kolektiboa da eta tokikoa	9
Startup eredu ez da eredugarria	11
Udalgintza:	13
Udalgintza berri baten beharra	14
Ekonomia Sozial Eraldatzailea: herrietan bultzatzeko proposamena	16
10 neurri Ekonomia Sozial Eraldatzailea herrietan bultzatzeko	17
Kontsumoa:	18
Kontsumoa etorkizuna eraldatzeko tresna?	19
Kontsumo kooperatibak Erkiden integratuak, baina nola?	21
Finantzak:	23
Finantza etikoak burujabetzarako tresna izango dira	24
Tokiko garapenerako tresna finantziario berriak	26
Eztabaidak:	28
Lehiakortasuna edo demokratizazioa da helburua?	29
Nola jabetu herritarrak merkatuak eta estatuak urrundutako erabakimenaz	40
Artikulu Interesgarriak:	52
Media:	54



Ekonomia Sozial Eraldatzailea:

Beñat Irasuegi: “Enpresa baten gardentasunak bere balio positiboak nabarmentzen ditu”

urolakosta.hitza.eus | 2014-09-18

Asteburu honetan dator Azoka Herritik, baina aurrez, gaur, egitasmo horren barruan Ekonomia sozialaren garrantzia garapen lokalean izeneko hitzaldia eskainiko dute. Beñat Irasuegi (Errenteria, 1978) da hizlarietako bat. Olatukoop kooperatiba eta ekonomia eraldatzailearen enpresen sareko kideetako bat da bera.

Zein da hitzaldi honen helburua?

Tokiko garapena sustatu ahal izateko lana hainbat modutan egin daitekeela ohartzen gara. Garapen hori ekonomia sozial eraldatzailean egin beharko litzatekeela uste dugu.

Zer da ekonomia sozial eraldatzailea?

Enpresa bateko langileen parte hartzean oinarritutako ekonomia da, hau da, demokrazia ekonomikoan oinarrituta dagoena. Besteak beste, kooperatiben kasuetan ikusten duguna hau da, langile bakoitzak botoa emateko aukera duena.

Eta zein beste ezaugarri ditu ekonomia sozial eraldatzaileak?

Gardentasunaren balioa dago. Hau da, ekonomia honetan, datu guztiak gardenak izaten dira bai bertako langileentzat, bai kontsumitzaileentzat. Nolabait, gardentasun honek balio positiboak nabarmentzeko balio du.

Ekonomia mota honetan, zein baliok du garrantzia gehien gaurko hitzaldiari begira? Enpresa hauek inguruarekiko duten ardura. Negozio hauen inguruan eragin sozial positiboa sortu behar dute, bai ekonomia bultzatzen dutelako, bai lana sortzen dutelako. Baina, baita ere, beraien eremuetan eragile sozioekonomikoak direlako.

Nolako garrantzia dauka eragin sozial positibo hori lortzeak?

Enpresa batek, bertan dagoen kultura edo ekonomia sorkuntza jardueretan partaide eraginkor bat izan behar du.

Hau guztia enpresetan oinarrituta dago, orduan?

Askotan ahaztu egiten gara, baina elkarte edo erakunde batek ere ekonomia sortzen du eta, beraz, hauek ere ekonomia honen barruan sartzen dira. Adibidez, askotan herri bateko udala izaten da jende gehien kontratazen duena.

Kooperatiben moduan, ezta?

Bai. Enpresa hauek egitura parte-hartzailea dute, baina erakunde publikoak ere ekonomia mota honen barnean daude. Azkenean, guztien arteko sare bat da.

Beraz, kooperatibak ekonomia soziala sustatzen du?

Bai, hori da. Hala ere, gaur egungo egoera ekonomikoa dela eta, handitu egin diren kooperatibek kontrol demokratikoa galdu dute. Azken urtean prentsan asko ikusi da hori, eta ekonomia sozial eraldatzailearen balioetako bat hori ez gertatzeko irtenbideak bilatzea da. Kooperatibismoa bai, baina kooperatibismo eraldatzailea.

Nola funtzionatzen du kooperatibismo eraldatzaile horrek?

Gakoa da langileek enpresan edo erakundean hartzen diren erabakietan parte hartzea. Gaur egungo kooperatibismo eraldatzailea langileen arteko berdintasuna mantentzean oinarritzen da.

Zer egin dezakete herritarrek ekonomia hori sustatzeko?

Elkarlaneko ekintzailetasunari esker, eskualdeko beste eragile sozialekin edo publikoekin elkarlanean saretzea. Erakunde eta enpresa pribatuak eta publikoak elkarlanean aritzea, eta ez bakoitza bere aldetik. Hau da, guztiek eredu alternatibo baten alde egitea.

“Oinarrizkoa da eredu eraldatzailean lan egiten dugun enpresa, elkarte eta kolektiboen saretzea”

Tapuntu.eus / 2016-05-13

Gaurko martxan Beñat Irasuegi oreretarrari egindako elkarrizketa aurkezten dizuegu. Komunikazio eta teknologia alorrean aditua den arren, mila saltsatan dabil beti. Hala nola, Olatukoop ekimenaren parte da, Kooperatzen programaren gidari eta noski, Talaios Kooperatibaren sortzaile eta kide dugu beste bi lagun eta lankiderekin batera. Azkenik, ezin dugu ahaztu, Ekonomia Sozial eta Eraldatzailearen defendatzaile sutsua dela eta modelo ekonomiko honen alde etengabe borrokan dabilela.

Hain zuzen ere, aurreko urteko Kooperatzen programaren parte hartzaile izanagatik, TaPuntuko kideak Beñat ezagutzeko parada izan genuen. Argi dugu bere laguntzari esker, gure proiektuak bultzada garrantzitsu bat jaso eta aurrera egin ahal izan genuela.

Martxan dira jada kooperatzenen bigarren urtea eta eraldatzenen lehena. dagoeneko proiektuak forma hartzen hasi diren honetan, zein proiektu mota daude labean? eta zein da desberdintasuna iazkoekiko?

Bai martxan dira eta proiektu interesgarriak ditugu gauzatze bidean, etapa ezberdinetan baina errealitate izateko aukera handiarekin. Proiektu asko agroekologiarekin lotuta daude, kontsumo kooperatiba bat, arraultza ekologikoak, baratze ekologikoa, pasta obradore ekologikoa, argi erakusten duena gaiaren inguruan gaur egun dagoen interesa eta beharra. Horretaz gain ikus-entzunezko produktora bat, etxeko zaintza kooperatiba bat, bizitza hoberako zerbitzuak, edo taberna kulturgune kooperatiba bat ere badaude proiektu gehiagoren artean.

Aurtengo diferentzia handiena da hasieratik proiektuak definituagoak daudela eta proiektu hauek bi zatitan banatu direla, kooperatiba izatera bideratutakoak Kooperatzenen eta herrigintzara edo elkartegintzara Eraldatzenen.

ESE hitz gutxitan ondo azaltzea zaila egiten da askotan. edonork ulertzeko moduan azaltzeko gai izango al zinateke?

Ekonomia Sozial Eraldatzailea eredu ekonomiko osoa izanda konplexua izan daiteke definizio erabat zehatza ematea, baina erraz azaldu daiteke. Jendartearen behar sozial eta ekonomikoei erantzuteko, bizitza erdigunean jarririk eta aberastasuna sortzeko ezagutza eta tresnen jabetza sozialean oinarrituta, edozein sektoretan demokrazia ekonomikoan lan egiten duen eredu ekonomikoa da. Aberastasuna sortu eta modu orekatuan banatzea du helburu, bizitzaren jasangarritasuna, pertsonena eta ingurunearena errespetatuz, eta tokiko ekonomiari eta jendartearen eraldatu eta ekarpena egiteko asmoa duena.

Ekonomia eraldatzailea gizarte kontsumitzaile batean txertatzeak zenbat du utopiatik?

Argi izan behar da tentsioa etengabea dela, ez utopikoa delako zeren luzerako helburuak izaera utopiko indartsua badute ere, hau da bizi dugun jendarte eredu eraldatzea, Ekonomia Eraldatzaileko proiektuak errealitatearen irakurketa zorrotzean oinarritzen dira, eta bizi duten inguruan erresiliente izatean, kontradikzioak onartu eta gaindituz. Kontradizio horiek gainditzeko eta merkatu eta eredu kontsumistan ez galtzeko, oinarrizkoa da eredu eraldatzailean lan egiten dugun enpresa, elkarte eta kolektiboen saretzea. Hor txertatzen dugu Olatukoop gure sarearen pertinentzia.

Gizartean dugun krisi ekonomiko eta sozial honetan ekintzailtza saltzen dute soluzio majiko gixa. zer deritzozu?

Bai, horrela da, sistemak herritar guztiontzako lana sortzeko gai ez den garaiotan ekintzailtza eskeintzen da horri soluzio paliatibo bezala, ardura norberarentzat lana sortzen duenari trasladatuz. Lanaren autoeraketa positiboa iruditzen zait, baina gaur egun hegemonikoa den ekintzailtza eredu ez da positiboa, arrakasta indibidualean oinarrituta dago eta ez autoeraketa eta jasangarritasunean. Horretarako beharrezkoa da proiektu kolektiboak eta epe luzera jasangarriak izango diren ekintzailtza ereduak martxan jartzea.

Egunero lantzeaz gain, sarean lan egiteari buruz arituko gara laster beterrin. honen harira, zer da zailagoa lortzen, sare fisikoa edo digitala?

Gaur egun oso garrantzitsua da sarean lan egitea, bereziki ekonomia sozial eraldatzaileaz ari bagara, izan ere jarduera eta izaeraren parte garrantzitsua baita proiektuaren saretzea. Ez dago ulertzerik proiektu eraldatzailearik sarerik gabe, eta XXI. mendean ez dago sare hauek eraikitzerik digitala eta presentziala kontuan izan gabe. Batera joan behar duten kontuak dira, batzuentzat errazagoa izango da sare digitalak antolatzea, kontaktu presentzialik gabe, baina bestela ere sare digital ondo egituratuak eraikitzea ez da uste den bezain erraza. Biak ondo landuko dituen estrategiak pentsatzea eta egitea da gakoa.

Tapunturen izenean guztiagatik eskerrak ematea besterik ez zaigu geratzen beñat! zorte on bidean lagun!



Ekintzailletza:

Ekintzailtza soziala kolektiboa da eta tokikoa

etzi.pm: Beñat Irasuegi / 2016-01-24



Ekintzailtza soziala modan jarri nahi dute, iada ez badago. Mugimenduak argiak dira kapitalaren aldetik, baina bistan uzten dute kapitalismoaren marka, ekintzailtza soziala bultzatzean, startup ekintzailtzaren ezaugarri negatibo guztiak erreproduzitzen baidituzte [1]. Hala finantziarizazioan eta arrakasta indibidualean oinarritutako ekintzailea da heroi berria, gainera ikuspegi sozialarekin, zer gehiago nahi dugu! [2] Esanahiaren lapurreta saiakera argiaren aurrean gaude, baina ez diegu utziko irabazten eta argi utziko dugu zer ez den ekintzailtza soziala. Heroi indibidualean oinarritutako ekintzailtza ez da soziala, kanpora begira, mozkinen zati bat edo ekimenaren parte bat izaera sozialez barnizatzen duten, baina gutxi batzuentzako errenta handiak oinarri dituzten enpresak edo fundazioak ez dira ekintzailtza soziala.

Ekintzailtza soziala kolektiboa da edo ez da. Oesterheld handi eta tragikoaren aipuari jarraituz, gure 'heroi baliagarri bakarra, taldean doana da, inoiz ez heroi indibiduala, bakarrik dagoen heroia'. [3] Izan ere gurutzatzen gaituzten erlazio sozialen sarea gara, eta erlazio hauen ondorioz bizi gara, erlazio sozialik gabe ez dago errealitate posiblerik, eta bistatik kentzen baditugu subordinatzen ari garelako da, kapitalaren erlazioen azpian subordinatzen. Erlazio sozialek gainera territorio bat behar dute, eta berdin ekintzailtza sozialean abiatutako edozein proiektuk, horregatik da oso garrantzitsua, sortzen den tokiarekin harremana izatea, tokiko beharrei erantzutea, modu batean edo bestean, proiektuak berak izaera unibertsala izan dezakelarik, transnazionalitatea bilatuz. Beste noizbait sakonduko dut atal honetan.

Baina hasi gaitezen proposatzen, ezagutzen al dugu ekintzailtza soziala modu kolektibo eta tokiko beharrei begira sustatzeko proiekturik? Badira gutxi batzuk Europa mailan, Starter Katalunian edo Kooperatzen Eta Berrekin Berreginen lehen saiakerak Euskal Herrian. Oraindik baina ez dugu bide horretan landutako egitura egonkorrik gure inguruan. Proposatze aldera argi daukat nola izan beharko luken Ekintzailtza Soziala sustatzeko egiturak: Kolektiboa, tokikoa eta banatua.

Kolektiboa ere osaketan, ez sustatutako proiektuen izaeran bakarrik. Publiko-Kooperatibo-Komunitarioa, non praktikan dauden ekimenek (Olatukoop edo REAS), hezkuntzaren munduan dabilzanekin (GEZKI, LANKI edo Lanbide Heziketako zentruak) eta tokian tokiko Udal, Mankomunitate edo Garapen agentziekin, Ekintzailtza Soziala eta Ekonomia Sozial Eraldatzailea sustatzeko Sare Banatua sortuko duten.

Gainera asko egina dago, dauden egituren izaera aldatu eta saretzea da garrantzitsua, proiektu berri eta anitzak uztartu eta erreferentzia sozial indartsua eskeiniz. Hala ere tresna berriak beharko ditugu, bai proiektuen jarraipena egiteko, proiektu berriak sortzeko baliabide tekniko sozialak izateko edo diskurtso berriak zabaltzeko. Ikusiko dugu zein forma hartzen duten, ari gara lanean.

Bitartean Bergaran eta Debagoienan Berrekin.Berregin proiektuaren bigarren edizioa hasi dugu. 'Berrekin.Berregin Debagoiengan ekintzailtasun sozial eta komunitarioa sustatzeko programa da. Bergarako Udalak eta Mondragon Unibertsitateko Lanki Ikertegiak antolatutako egitasmoa da, Olatukoop eta Bagararen kolaborazioarekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin sortua izan dena'. Pasa den urtean parte hartu zuten pertsona eta proiektu sozialekin aurrera jarraituko dugu, eta berriak sortu eta forma emango diegu. [4]

Noizbait bide honetan autonomiaz eta eraldatzeko asmoz proiekturik martxan jartzea pentsatu baduzue, animatu eta izena eman ekintzailtza eta formaziorako proiektu sozial eta kolektibo honetan.

[1] etzi.pm: [Startup eredua ez da eredugarria \(Beñat Irasuegi\)](#)

[2] <http://spain.ashoka.org/fellows>

[3] [Berria: Rosa luxemburg egunero \(Hedoi Etxarte\)](#)

[4] [BERREKIN.BERREGIN](#)

Startup eredia ez da eredugarria

etzi.pm: Beñat Irasuegi / 2016-01-10



Garapen ekonomikoaren inguruko ekimenetan aritzean edo irakurtzean, askotan ateratzen da startup enpresei buruzko informazioa, erreferente moduan, denok jarraitu beharko genuen eredu moduan, beraiek lortu badute guk ere lortu dezakegu etab. Baina zer da startup bat? Definizio klasikoa hartuta [1] esango dugu, askotan teknologiari lotutako edo negozio eredu/zerbitzu/produktu berritzaileak eskaintzen dituzten enpresa emergenteak direla. Baina definizioari analisi kritiko minimo bat eginez esango dugu, kapital metaketa azeleratzeko asmoz, negozio eredu/zerbitzu/produktuaren inguruko aukerak komunikazio eta marketing teknika bidez puztu eta finantzaketa aukerak handituz, etekin azkarrak lortzera bideratutako enpresa eredia dela.

Asko eztabaidatu dezakegu aurretik idatzitakoez, berez eztabaida falta dago, eta behar genuke, zeren eztabaidarik gabe diskurtsoa markatu nahi dutenen markoetan blokeaturik geratu gaitezke [2] Baina bada arazo bat erreala, eta dat startup formula eredia dela gure hiri eta eskualdetako garapen ekonomikorako egitura publikoetan. Bide horretan, talentuaren, hoberenen, arrakasta eredu indibidualen aldeko apostua egiten da, berrikuntzaren aitzakian, eredu enpresarial kapitalista erreplikaturik. Jende prestatuaren eskuetan utzi behar da territorioen garapen ekonomikoa, baina Hedoi Etxartek abisua pasa zigun 'Neoliberalak kontzeptu askorekin markatzen dute beren partida egunero. Kontzeptu horietako bat da jende prestatuarena' [3] Horretarako nola ez, gaur egungo kolaborazioaren kultura erabiltzen da, sareak, espazioak, partekatze ekonomiaren (Sharing Economy) ideia, baina modu estetikoan.

Baina edozein kritika arrazoitu behar da, eta aurretik egindakoak baditu oinarritzko arrazoiak. Beste toki batzuetan ere esan dugu jendartean eta ekonomian gertatzen diren tentsio handienak Bizitza vs Kapitalaren arteko konfrontazioan gertatzen direla, eta kasu honetan ere hor dago gakoa. Startup ereduak finantziarizazio behar handia du, proiektua inbertsoreei erakargarri egiteko, kapitala du helburu eta tresna beraz. Finantza erakunde tradizionalak ez dute inguruarekin harremanik, beraz berdina zaie proiektuak ingurunean duen eragin ekonomiko eta soziala, are eta gehiago, inbertsoreentzat erakargarriago egiteko proiektua hauentzat erakargarriago den eremuetara eramango dute, hirietara lehenik, world class enpresa gune eta herrialdeetara ondoren, finantziarizazioan pausoak

ematearekin batera. Eta finantziarizazio hau nola gertatzen da proiektuaren sortzaileek oinarrizko kapitalik ez badute? Ba enpresaren zatiak edo kontrola salduz, kasu askotan %100ean. Esan daiteke Startup askorentzat hori dela helburu nagusia, errenta edo kapitalaren truke proiektua ahalik eta garestien saltzea. Eta zer ikusteko du horrek tokiko garapenarekin, edo ingurune sozialarekin errespetua izango duen proiektu batekin? Aberastasuna sortzen du baina noizentzat? Eredu eta garapen bide honen kontrajarriak diren eta komunitate errealei autonomia ekonomikoa eskeintzen dieten Bizitza proiektuak vs Metaketa proiektuak konfrontazioarekin aurkitzen gara beraz. Bideo honetan gai honetan sakontzen saiatzen naiz [4] Ereduak kontrajarriak dira, aukeratu beharra dago.

Eta kritikaren ondoren proposamenak egiteko gai bagara askoz hobe. Kasu honetan aipatu bezala garapen ekonomikorako badago langileen bizi proiektuetan oinarritutako eredu lantzerik. Ekintzailtza kolektiboan oinarritutako proiektuekin, Olatukoopeko kide den Nagore Vegak artikulu honetan proposatzen duen moduan [5] Baina horretarako beharrezkoa da Ekintzailtza Kolektiboa lantzea proposatzen duen Ekonomia Sozial Eraldatzailea aintzat hartzea. Garapen ekonomikoa lurraldearekin eta jendartearen beharrek lotzeko, proiektu erresilientez osatutako sare ekonomikoa sortzeko, pertsona eta kolektiboei garapen eta autonomia aukerak eskeintzeko, ingurunearekiko errespetua bermatzeko, aberastasunaren banaketa hobea egiteko. Eta horretarako nahitaezkoa da Ekonomia sozial Eraldatzaileko eragileen eta Udal eta Tokiko Garapen Ekonomikorako egituren arteko aliantza bat. Badago nondik hasi eredu berriak zabaltzeko, ez ditzagun eredu txarrak erreplikatu. [6]

[1] StartUp definizio klasikoa

https://en.wikipedia.org/wiki/Startup_company

[2] ADEGIko Foro de Emprendedoresen proposamena

<http://adegi.es/foroemprendedores/blog/2012/12/26/propuesta-abierta-para-el-desarrollo-de-una-gipuzkoa-emprendedora/>

[3] Jende prestatuari buruz Hedoi Etxarte

http://www.berria.eus/paperekoa/1922/019/002/2015-07-18/jende_prestatua.htm

[4] Beñat Irasuegi Gure Bazka <https://youtu.be/sDCCy7ILFfw>

[5] Ekintzailtza kolektiboaz Olatukoopeko Nagore Vega

http://www.berria.eus/paperekoa/1870/026/1863/2015-12-13/ekintzailtza_kolektiboa.htm

[6] Ekonomia Sozial Eraldatzailea herrietan bultzatzeko proposamena (10 neurri)

<http://olatukoop.net/ekonomia-sozial-eraldatzailea-herrietan-bultzatzeko-proposamena/>

Irudia: https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Bundesarchiv_Bild_183-R90251_Rehfelde_Traktoristin.jpg#/media/File:Bundesarchiv_Bild_183-R90251_Rehfelde_Traktoristin.jpg



Udalgintza:

Udalgintza berri baten beharra

etzi.pm: Beñat Irasuegi / 2015-11-18



Azken urteotan, 2011tik 2015erako zikloan, bi kolpetan ikusi da gaur egun arteko sistema instituzionalaren funtzionaltasuna gero eta gehiago dudan jartzen dela, arlo askotan, baita tokiko mailan, udaletan. Jendarteak, gardentasuna, parte hartzea, baliabide publikoen erabilera edo kontrol herritarra eta demokratizazioa bezalako kontzeptuak gero eta gehiago erabiltzen ditu. Hori horrela izanda, garrantzitsua da kontzeptu berri horiek atzean duten benetako beharra identifikatu, eta egiten diren plangintza eta proposamen berriak paradigma berri honetan txertatzea.

Paradigma aldaketak zuzenean eragiten die instituzio publikoei, eta bereziki herritarrengandik hurbilen dauden instituzioei. Horrela Joan Subirats irakasleak egiten duen diagnostikoa ekarriko dugu hona [1]:

Gaur egungo jendarteak baditu arazoak egungo administrazioek, beste garai baterako eraiki eta pentsatuak, konpondu ezin dituztenak. Zurruntasun instituzionalak, burokraziak, departamentu estankoak... instituzioen Akilesen orpoa dira, eta arazoak ematen dizkiete haiengana konponbide bila jotzen duten herritarrei. Honen aurrean instituzio eta herritarrekin sare moduan lan egiteko beharra dago.

Baina nola egin lan sarean gaur egungo instituzioekin? Ezin da, udalgintza berri bat behar da, demokratizazio etengabe lan egingo duena, sarean.

Paradigma berrian, eta instituzionalitate berri baten beharra detektatuta, udal mailako instituzioen papera garrantzitsuagoa bihurtzen da, izan ere, herritarrengandik gero eta urrunago dauden instituzioen aurrean, udalgintza berria da beste maila instituzionalen aurrean eragile eraldatzaile bihurtzen dena, eragile demokratizatzailea. Gainera paper berri hau esparru guztietara zabaltzen da, ez orain arte udal kompetentziek hesitutako esparruetara, herritarrei modu globalean eragiten dieten arlo guztietara baizik.

Horrela instituzioek eta herritarrek osatutako sareek, ekonomiaren demokratizazioan adibidez sekulako papera (eta lana) dute. Azkenaldian zabaltzen ari den moduan, eta Catalunya, Italia, Frantzia edo Quebec-en egiten den bezala, udalgintza berriak badu zeregina [2]. Euskal Herrian ere badira eragile eta proposamen bide hau hasteko [3].

Udalgintza berriaren bidea hasi nahi luketen herriak egon badaude, eta eraldatzeko erabakia hartzen dutenak ez dira bakarrik egongo bide horretan.artzelona, Cadiz, A Coruña, Compostela, Zaragoza, Madrid, Badalona, Iruñea, Hernani edo Errenteria hasi dira ere bide honetan, eta udalgintza herritarrentzako eraldaketarako tresna bezala ulertzen duten beste hainbat udal gehituko dira, gainera [4].

Gaur egun onartzen hasi da hiriak direla estatuak baino eraldaketarako espazio preferentziala, eta hori frogatu da mundu mailan gertatu diren azken urteetako mugimendu nagusietan. Mugimendutik eraldaketara bidea egiteko, ordea, mugimendu sozialen eta udal egituren koordinazioa behar da; hala, batzuk Ciudades del Común edo guk Udalgintza Sozial Eraldatzailea deituko duguna eraikitzeke. Eta zer da Udalgintza Sozial Eraldatzailea, zein bereizgarri ditu?

- Komuniket, herrigintzatik datozen praktikak aitortzen eta babesten ditu.
- Biltegi eta plataforma digital/presentzial parte hartzaileak eraikitzen ditu.
- Marko juridiko malguak sortzen ditu herritar, herrigintza eta kooperatibismoarentzat.
- Publiko-komunitario-kooperatibo paradigma onartzen du, gaurko publikoa-pribatua paradigmen aurrean.
- Errekurtso ekonomikoak eskaintzen dizkio eremu komunari, kooperatibo-komunitarioari.
- Eredu ekonomiko sozial eraldatzailea sustatzen du.
- Intermunizipalismoa garatzen du, Udalgintza Sare Eraldatzailea.

Azken finean, oinarrizko printzipioekin sare indartsua sor daiteke, elkar onartzen/aitortzen duten udalen elkartasun sarea.

Hitzetatik ekintzetara bidea egin behar da, ordea, eta horretarako bideratutako tokiko estrategiak landu beharko dira. Horretarako baditugu eskala handiagoko ereduak ere, udal mailara ekarri daitezkeenak, FlokSociety da bat [5].

Oso modu xumean hasi daiteke bidea, pixkanaka zabaldu eta eraginkorragoa bihurtuz; udalgintza berria eta herritarren arteko sare bizia sortuko duena, denon artean denontzako herri hobeak egiteko.

[1] http://www.eldiario.es/norte/euskadi/gran-problema-Espana-educacion-cero_0_446905621.html

[2] <http://www.economiasolidaria.cat/?p=746>

[3] <http://olatukoop.net/ekonomia-sozial-eraldatzailea-herrietan-bultzatzeko-proposamena/>

[4] <https://www.diagonalperiodico.net/global/27761-por-red-global-ciudades-rebeldes-del-bien-comun.html>

[5] <http://flocksociety.org/>

Irudia: https://en.wikipedia.org/wiki/Paris_Commune#/media/File:Colonne_vendome.jpg

Ekonomia Sozial Eraldatzailea: herrietan bultzatzeko proposamena

olatukoop.net / 2015-06

Bizi dugun krisi ekonomiko sistemikoaren aurrean, antolatzeko eredu sozial eta ekonomiko berriak bilatu behar ditugu. Hots, jendartearen ongizatea eta bizitzaren iraunkortasuna helburu izango dituen garapen eredu egonkor eta parekidea ahalbidetu behar dugu.

Azken hamarkadetan, ESE Ekonomia Sozial eta Eraldatzailean oinarritzen diren alternatiba ekonomikoak sortzen eta zabaltzen ari dira: nekazaritza ekologikoa eta komertzializazio zirkuitu laburrak; finantzazio etiko eta solidarioak; ekoizpen eta salmenta energetiko iraunkorra; enpresa antolaketa eredu horizontal eta parte hartzaileak; dependentzia egoeran dauden pertsonen zaintzarako ekimenak; erreprodukzio lanenak...

Ekimen horien garapenak lanpostu berriak sortzen ditu, harreman sozial parekideak indartzenditu, eta pertsona zein ingurumena sistemaren zentroan kokatzen dituen eredu ekonomikopostkapitalista, iraunkor eta justuak eragiten ditu.

Horrez gain, Nazioarteko Aliantza Kooperatiboak aldarrikatzen dituen 7 printzipioen artean, Komunitatearekiko Konpromisoa ere aurkitzen da: "Kooperatibak, bere bazkideek onartutako politiken bidez, bere inguruko komunitatearen garapen iraunkorra lortzeko egiten du lan. Bazkideen behar eta nahietan zentratzen den modu berean, bere bazkideek onartutako irizpideen arabera, kooperatibek komunitateen garapen iraunkorra lortzeko egiten dute lan".

Horrela, bada, Ekonomia Sozial eta Eraldatzaileak berezkoa du, tokiko garapenean sakonduz, inguruko komunitatearen ongizatea bilatzeko helburua. Hau da, enplegu/lanpostu duin eta egonkorak sortzeaz gain, lurraldearen eta komunitatearen giza garapen iraunkorra sustatzen dute, Ekonomia Sozial eta Eraldatzailean aritzen diren enpresek sortzen duten gaitasunaren inbertsioaren bidez.

Ekonomia Sozial Eraldatzailean oinarritutako inizatiba eta proposamen horiek demokraziaren kontzeptua eta praktika eremu ekonomikora zabaltzen dute, pertsonak zein komunitateak eraldaketa sozioekonomikoaren protagonista bilakatzen dituzte, eta elkartasunean, berdintasunean, askatasunean eta auto-eraketan oinarritzen den jendarte bat sortzeko baldintzak eskaintzen dizkigute.

Tamalez, ekimen horiek guztiek eragiten dituzten onuren ezagutza eta errekonozimendu maila oso baxua da oraindik. Ez dugu eskaintzen duten potentzialtasun guztia baliatzen, eta jendartearen eraldaketarako baliabideei ez gara probetxurik ateratzen ari.

Ekimen horiek guztiak identifikatu, bistaratu, berriak sor daitezten baliabideak eskaini, elkarlan sareak ehundu eta horien arteko proiektu komun berriak bultzatu nahi dituzte jarraian aurkezten ditugun neurri hauek.

10 neurri Ekonomia Sozial Eraldatzailea herrietan bultzatzeko

1. Merkatu sozialak zein kanpaina publikoak egin. Ekonomia Sozial Eraldatzailea ezagutzarazteko eta tokiko ekonomia sustatzeko.

2. Sortu diren ekimen kooperatiboetan parte hartu. Elikadura burujabetzari, energia berri-
ztagarriei, parekidetasunari eta finantza etikoei lotutako ekimen kooperatiboetan udalek
ere parte hartzea.

3. Herrietako egitura sozioekonomikoaren eraldaketaren kontakizuna garatu. Garatutako
ekimenen ikuspegi integrala landu, mapeoak, gidak... egin, eta herriko proiektu kooperati-
boen memoria berreskuratu.

4. ESE eragileei azpiegitura publikoak, eraikinak zein lurrak erabiltzeko erraztasunak
eman. Ekonomia Sozial Eraldatzailearentzako eremuak sortzea eta eraldatzea: lokalak
uztea, elkarlantegi (coworking) eremuak sortzea, izaera sozialeko enpresa eremuak...

5. Zerbitzuen kooperatibizazioa bultzatu. Arlo jakin batzuetan herriko zerbitzu publikorik
egon ezean, kooperatibizazioa sustatu.

6. Klausula sozialak bultzatu. Sozialki arduratsuak diren erosketa eta kontratazio publi-
koak sustatu.

7. ESE eremurako kreditua lortzeko erraztasunerako bideak jorratu. Eta zerga pizgarriak
aplikatu mota horretako ekimenetan.

8. ESE formazioa, aholkularitza eta lanpostu berriak sortzeko ekintzailtza kooperatiboko
zerbitzuak. Garapen Agentzien eskutik horretarako departamentuak sortzea.

9. Tokiko nekazaritza bultzatu eta lurraldearen erabilera arduratsua ziurtatu. Horretarako
plan orokorrak garatu.

10. Herri bakoitzean Ekonomia Sozial Eraldatzailearen batzorde bat sortu. Batzorde hori
izango da politika sozial, ekonomiko eta kulturalak lankidetzan publiko-kooperatibokomu-
nitarioaren bidetik sustatzeko arduraduna. Bere gain hartuko dituen lanen artean egongo
dira:

- ESEren herriko diagnostiko bat egin. Diagnostiko lokala.
- ESErentzako izaera integrala duen Plan Orokor bat diseinatu. Herri mailakoa izango
da, eta aurrekontu eta ebaluazio mekanismoak izango ditu.
- Urtero memoria bat idatzi.
- Eragile publiko zein kooperatibo-komunitarioez osaturiko talde-zerbitzu bat sortu,
suerta daitezkeen gatazketan bitartekari lanak egiteko.



Kontsumoa:

Kontsumoa etorkizuna eraldatzeko tresna?

etzi.pm: Beñat Irasuegi / 2015-05-21



Entzuten da askotan, kontsumo erabakiak erabaki politikoak direla, kontsumitzaileak boterea, edo arrazoia, bere esku duela etab. Bai baino ez.

Badira bi edo hiru urte “kontsumo kolaboratiboa” deituriko kontsumo partekatu ereduak ugaltzen hasi zirenetik, mundu mailan oso ezagun egin diren adibideetatik, Uber, Airbnb, Trip4real, edo hurbilago ere sortu diren generazio berriko kontsumo kooperatibetara, Goiener, Fiare eta antzekoetara. Denak partekatze ekonomiaren ideia berdinean kokatzen dira, baina inondik inora ez dira berdinak. Badugu lehen lan bat beraz: “coolkeria” nabarmenez modako kontzeptu ekonomiko berriak sortzeko ohikoa izaten da kontzeptu hauek edukiz hustu eta oso ezberdinak diren proiektu eta ekimenak bertan sartzea horrela esanahia sortzeko, eta horregatik beharrezkoa dugu aurrera begira esanahi hutseko kontzeptu honetan eredu ezberdinak identifikatzea. Nik bi eredu behintzat argi ikusten ditut: Baliabideen oparotasuna zentralizatuz errentak lortu nahi dituztenak, eta baliabideen kolektibizazioa bilatzen dutenak oparotasuna sortzeko.

Lehen eredu oso ezaguna da, eta kapitalismoaren birformulazio moduan oso modu azkarrean ari da zabaltzen mundu osoan, lehen aipatutako Uber edo Airbnb adibideen moduan. Artikulu honetan ez dugu gehiago sakonduko eredu honetan, aztertuko dut beste batean, eta gehiago begiratuko dugu bigarren eredu, etorkizun justuagoak eraikitzeko interesgarriagoa dena.

Kontsumo eredu kolektiboek bere horretan ez dute ekonomia eta jendartea eraldatuko, hori argi dago, baina esperientzia hauek zerbait erakutsi badidate da ekintzaren bidean jartzeko jende askori lehen aukera ematen diela, batzutan nekazari bati modu justuagoan barazkiak erosi nahi dizkiolako, energia oligopoliarekin nazkaturik energia kontsumo kooperatiba batean izena eman duelako edo bere aurrezkiak modu garden eta etikoan erabiliko dituen kreditu erakunde bat erabiltzen hasi delako, asko dira lehen pausoa emateko bideak. Eta horrek, pauso hori emateak gaur egun izugarrizko garrantzia dauka.

Hala ere bide hori lantzerako orduan badugu erronka handi bat, fragmentazioa gainditzearena. Izan ere gaur egungo jendarteak indibidualizaziorako joera nabarmena du, bereziki kontsumo eredu masiboan oinarritutako sistema kapitalistak horretara bultzatzen duelako, bere neurrira egindako gizarteak indibidualki ahalik eta gehien kontsumituko duten pertsonak behar baiditu. Egoera horretan kontsumo eredu aldatzeko erabakiak hartzeak izugarrizko garrantzia dauka, bai na eraldatzailea bihurtzen hasten da, kontsumo eredu aldatzeko egituraketa kolektiboak lantzen hasten direnean, indibidualizazioa gaindituz, eta eredu alternatiboen arteko erlazioak identifikatu eta saretzen hastean, proiektuen fragmentazioari uko eginez.

Gure inguruan azken 4-6 urteetan, azken krisi kapitalistarekin batera, asko garatu dira eredu ekonomiko berriak, garapena paradoxikoki kontsumo proiektuetan gertatu da modu nabarmenean, baita finatziarioan, eta orain erronka sektore guztietara eta ekoizpen eta banaketara zabaltzea da. Kasu gehienetan proiektu txikietatik abiatuta, askotan tokiko garapenera bideratuak dira ekimenak, eta horregatik ekimen hauek txertatu behar dute bere baitan saretze lana, ezin dute tokian tokiko esperientzia bezala gelditu, benetan eraldaketa bilatzen badute. Zabalpenerako ordea ezin proiektuen hazkunde organiko estrategietan oinarritu, beste bideak behar ditugu, saretze lanean oinarritutakoak, Ekonomia Sozial Eraldatzailea saretuko dutenak, tokiko merkatu sozial errealak sortuz, eta hauek ere saretuz elkar elikatuko duten ekoizpen-banaketa-kontsumo kate berriak sortuz, balio sozialetan oinarrituak. Hortxe dugu etorkizuna marrazteko bide intereresgarri bat.

Saretze bide hori hasi dugu gure inguruan adibidez REAS, Olatukoop edo Bashherri taldeen sareak, baina badira proiektu zehatz eredugarriak: Fiare, Coop57, Goiener etab. Krisi garaietan askotan entzuten den galdera da “Zer Egin?” Baditugu aukerak lan egiteko, landu ditzagun, etorkizunak pentsatu eta egitea gure esku dago.

[Artikulu hau [Bashherri sarearen fanzinerako idatzi nuen](#) beste honen moldaketa bat da, ikuspegi ezberdinetik abiatuta]

Irudia:«Anticonsumismo» EdgarFabiano – Lan propioa. CC0 Lizentziapean Wikimedia Commons.

Kontsumo kooperatibak Erkiden integratuak, baina nola?

etzi.pm: Beñat Irasuegi / 2015-07-14



Gaur Erkideren [1] Ez-Ohiko Batzarra egin da Gasteizen, azken Ohiko Batzar Nagusia egin eta 6 astera [2]. Atentzio deitzen du Erkide bezalako sare-erakunde batek horrelako epe motzean bi Batzar Nagusi deitzeak, jakinda bertan parte hartzea mugatua dela, kasu gehienetan informazio faltak eta denbora disponibilitateak eragindako oztopoen ondorioz.

Harrigarriagoa da hala ere Ez-ohiko Batzarra deitzeko arrazoia, Kontsumo kooperatibak Erkiden integratzeko proposamena. Gaur egun Erkide “Euskadiko Lan Elkartea, Irakaskuntza eta Kreditu Kooperatiben Federazioa” da, eta proposamenaren arabera Kontsumo Kooperatibak, gaur egun arte Erkide federaziotik kanpo izan direnak bertan integratuko lirateke, horretarako zenbait erabaki hartuz: 1) Kontsumo Kooperatiben integrazioaren onespina 2) Federazioaren izendapenaren aldaketa 3) Estatutu Sozialetako artikuluetan aldaketak 4) Kontseilari berriaren onarpina 5) Ahalmenen eskuordetzea.

Egiteko moduak eta azkartasunak sortutako sorpresaz aparte, a priori positiboa izan daiteke momentu honetan boladan dauden eta hazkundera izaten ari duten Kontsumo Kooperatibak beste kooperatibek osatzen duten Federazioan integratzea, izan ere Kontsumo Kooperatibak izan dira esperientzia kooperatibo askotan, Kataluniakoa, Herriberrikoa, Ingalaterrakoa, kooperatiba mugimenduen oinarri. Kontsumo kooperatibak izan dira kasu askotan langileen oinarrizko antolaketarako tresna garrantzitsu, eta ez da kasualitatea, historian kooperatibismoaren sorburu moduan identifikatzen den Rochdale Society of Equitable Pioneers [3] kontsumo kooperatiba bat izatea.

Sorpresa kezkarria ordea 4. puntuan dator, kontseilari berriaren proposamenean. Erkideren Kontseilu Errektorean kide bat izango dute Kontsumo kooperatibek, eta lehen ordezkari hori Eroski S.Coop. izango da, gaur egun dagoen kontsumo kooperatiba handienetako bat, tamainagatik ere Erkideren estatutuetan bozka kopurua asigatzeko bazkide kopuruaren araberrako goiko tartea aldatu behar izan delarik.

Eta asaldura zergatik? Gaur egun Eroski S.Coop juridikoki kontsumo kooperatiba izanagatik ere ez delako sortzen ari diren kontsumo kooperatiba molde berrien eredu, ezta ere garai batean agian izan zen langileen antolakuntza eta auto-hornikuntzarako tresna. Kontsumo Kooperatiben integrazioa burutzerakoan Erkidek bilatu duena masa kuantitatiboan irabaztea izan da? Ez litzateke hobe izango, kooperatibismoa tresna eraldatzaile eraginkor izateko beste mota bateko kontsumo kooperatibei presentzia ematea ordezkartza bidez? Kooperatibismoa eraldaketa ekonomiko eta sozialerako tresna dela uste dugunok egin beharreko galderak.

[1] <http://www.erkide.coop/>

[2] <http://www.erkide.coop/batzarra/index.php?id=eu>

[3] https://en.wikipedia.org/wiki/Rochdale_Society_of_Equitable_Pioneers

[Irudia] https://en.wikipedia.org/wiki/Rochdale_Society_of_Equitable_Pioneers#/media/File:ToadLane2009.jpg



Finantzak:

Finantza etikoak burujabetzarako tresna izango dira

etzi.pm: Beñat Irasuegi / 2015-09-09



Gaur egun Euskal Herriko egitura ekonomikoa krisi sakonean murgildua dago, eta askok koiunturazkoa dela eta urte batzuetan sufritu ondoren lehengora bueltatuko garela esaten diguten arren, baditugu nahiko zantzu pentsatzeko krisia estrukturala dela, krisi finantzarioa baino, eredu ekonomiko eta sozialaren krisi sakona, beste hainbat faktore kontuan izanda gainera, krisi energetikoa, krisi klimatikoa etab. okerrera joan daitekeena.

Egoera honen erdian, mugimendu sozialek bultzatuta, alternatiba moduan hainbat ekimen sortzen eta indartzen ari dira Estatu mailan eta Euskal Herrian. Eredu finantzario alternatiboa proposatzen duten proiektuak dira, oinarri eta tresna ezberdinak martxan jartzen ari direlarik, moneta sozialak, banka etikoa, finantziario sareak etab. Hala ere hauek guztiak alternatiba partzial bezala ulertu behar ditugu, sistemaren baitan beste eredu, irizpide eta helburu sozialekin finantza zerbitzuak eskaintzerik badagoela demostratzen duten ereduak. Ez dira alternatiba unibertsalak, baina beste ereduak posible direla erakusten dute, eta txikitasunean garrantzia handia dute. Kasu gehienetan ere txikitik eta mugimendu herritarretatik hasita eredu sozioekonomiko osoaren eraldaketa helburuen artean dute, beti ere alternatiben sareak osatuz.

Hauen artean ditugu Euskal Herrian garrantzia izan dezaketen Fiare Banca Etica [1] eta [2] Koop57, biak gaur egungo krisiaren aurretik sortuak. Biak momentu honetan zerbitzua eman dezaketen izaera sozial sendoko erakundeak dira, eta zerbait aipatu behar bada, eta benetan kontuan izan, bien osagarritasuna da. Bai izaeran, bai oinarri soziala osatzerakoan, eta baita zerbitzuak eskaintzerakoan osagarriak izanik, ez dugu bata edo bestearen arteko aukeraketa bat egin beharrik, bien osagarritasuna ondo aztertu eta tresna diren aldetik bakoitza zertarako erabili daitekeen ondo aztertzea da klabea.

Eta zergatik burujabetzarako tresna? Fiare Banca Etica eta Koop57 ez dira alternatiba unibertsalak, baina alternatiba erreala dira, Euskal Herrian aktibitate handia dutenak edo izango dutenak, eta tresna izaeratik abiatuta eraldaketa ekonomikorako formulak erakusten dituztenak. Aurrera begira tresna hauek baloratu, nola erabili eta izan beharreko harremanak aztertzerakoan kontuan izan beharreko zenbait ondorio zerrendatuko ditut:

- Ez Fiare eta ez Koop57 ez dira Banka Publikoa, eta ezin zaie eskatu hau ordezkatzea, baina burujabetzaren bidean banka Banka Publikoaren inguruan egiten den lanketarekin batera gaurtik hasita burujabetzaren artikulaziorako tresna bezala erabili daitezke Fiare eta Koop57, etorkizunean Banka Publiko sendo baten osagarri bezala ere funtzionatu dezaketelarik.

- Tokiko sistema finantzarioa eraldatu dezakete, txikitik hasita, eta eskualdeko perspektiban eredu ekonomiko sozial eta eraldatzailearen eragile nagusietakoa bihurtuz. Ondoren eskualdeetatik eskala handituz, Euskal Herria bezalako eremu txikian, eredu ekonomikoaren eraldaketarako erreferentzia argia izan daitezke epe ertainean.
- Bi tresnak osagarriak dira, Fiare norbanako erakunde eta enpresentzat tresna operatibo bezala bereziki, eta Koop57 ekonomia eraldatzailearentzako finantziario eta artikulazio tresna erreferente gisa, baita eskualdeko garapen ekonomiko sozialarentzako tresna garrantzitsu moduan. Gainera hainbat finantziario operazio konplexuetan batera lan egin dezakete.
- Herritarren parte-hartzea sustatzen dute, arlo ekonomikoan, eta herritarrak tokiko garapen ekonomiko eraldatzailearen parte aktibo bihurtuz. Ekonomian kultura demokratikoa eta parte-hartzea sustatzen dute, eta eragile nagusi moduan landu behar dira. Tresna hauen aniztasuna eta herritar kontrola bermatzeko beharrezkoa da inbertsio bat egitea jendeak aktiboki egituretan parte hartu dezan.
- Izaera pribatuko erakundeak izanik ere, asmo publiko eta soziala dute, komunitarioak dira, horregatik garrantzitsua da tokiko erakundeekin harreman zuzena izatea, tresna bezala baina baita maila instituzionalean, bakoitzarekin eta tokian toki egokien ikusten diren formulak erabiliz. Instituzioek sendotasuna eta legitimitatea eskaintzen diete tresna finantzario hauei, eta tresna hauek erabiltzeak koherentzia ematen die instituzioen jardun eraldatzaileari, asmo hori duten instituzioen baitan beti ere.
- Eraldaketa ekonomikorako eta Euskal Herriaren burujabetzarako tresna izateko gaitasuna dute, nahiz eta beste herrialdeetan ere aktibitatea izan. Herritar, tokiko erakunde eta ekonomia sozialeko enpresen saretze eta tresna izango diren neurrian, hauek sendotzea eta parte hartze sozial eta herritarraren bitartez bertan eragiteko eta bultzada handia emateko gaitasuna eta aukera dago.

Burujabetza ekonomikoa, burujabetza politikorako behar beharrezko elementua da, ikuspegi estrategikotik, baina baita ere sortu nahi dugun Euskal Herriarentzako eredu ekonomiko propioa eraikitzeko. Horregatik gaurtik hasita erabili ditzagun eta sakondu dezagun eskura dauzkagun tresnetan. Lan asko daukagu bidean, baina gaurtik hasita eraldaketa sozial eta ekonomikoa garatzea gure esku dago.

Estekak:

Fiareri buruz:

[1] <http://www.fiarebancaetica.coop/>
<http://gipuzkoa.hitza.info/2014/02/14/egungo-ekonomia-ereduan-erldaketa-bilatzen-du-fiarek-2/>

Coop 57-ri buruz:

[2] <http://www.coop57.coop/>
http://www.berria.info/albisteak/87384/liher_gonzalez_ekonomia_herritarrek_kontrola_dezatela_nahi_dugu.htm

Irudia: “Braun Genova UBHD” by Georg Braun; Frans Hogenberg – Georg Braun; Frans Hogenberg: Civitates Orbis Terrarum, Band 1, 1572 (Ausgabe Beschreibung vnd Contrafactur der vornembster Stät der Welt, Köln 1582; [VD16-B7188)Universitätsbibliothek Heidelberg <http://diglit.ub.uni-heidelberg.de/diglit/braun1582bd1>. Licensed under Public Domain via Commons – https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Braun_Genova_UBHD.jpg#/media/File:Braun_Genova_UBHD.jpg

Tokiko garapenerako tresna finantziario berriak

etzi.pm: Beñat Irasuegi / 2015-10-05



Aurreko idatzi batean komentatu nuen nola izan daitezkeen finantza etikoak burujabetzarako tresna [1] eta aurkeztu nituen ere bide horretarako tresna izan daitezkeen Fiare eta Coop57. Orain ordea tresna hauekin gure inguruko ekonomian nola eragin daitekeen pentsatzen astea tokatzen da, tokiko garapenerako tresna finantziario berriak izan daitezke?

Biak momentu honetan zerbitzua eman dezaketen izaera sozial sendoko erakundeak dira, eta zerbait aipatu behar bada, eta benetan kontuan izan, bien osagarritasuna da. Bai izaeran, bai oinarri soziala osatzerakoan, eta baita zerbitzuak eskaintzerakoan osagarriak izanik, ez dugu bata edo bestearen arteko aukeraketa bat egin beharrik, bien osagarritasuna ondo aztertu eta tresna diren aldetik bakoitza zertarako erabili daitekeen ondo aztertzea da klabea. Bi proiektuak Euskal Herriko tokiko garapenean tresna garrantzitsuak bihurtu daitezke. Hiru arrazoi nagusi kontuan izanda:

1. Tokiko garapen ekonomikorako finantza erakunderik ez dago. Fiare eta Coop57 finantziazioa eskaintzen ari dira gaur egun.
2. Batez ere ekonomia sozial eta eraldatzailean oinarritutako proiektuak finantzatu, bultzatu eta sartzeko egiturak dira eta bide horretan garapen eredu eraldatzaileak zabaltzeko eragile izan daitezke.
3. Tokiko taldeen bitartez eta bultzatzen dituzten proiektuen izaeraren ondorioz tokiko ikuspegia garatua dute bi erakundeek.

Argi dago tokiko garapenerako tresna finantzarioen beharra dagoela, eta orain arte teorikoki behintzat horretarako existitzen ziren erakundeek, Kutzek, izaera hori galdu dutela bankarizazioaren bidean, gainera kontrol publikorako aukerak erabat murriztu direlarik. Horregatik beharrezkoa da, finantziazio tresna publikoen inguruko eztabaida eta birplanteamendua emateaz gain, momentu honetan dagoeneko martxan dauden tresnak erabiltzea, gaurtik hasita, eta hor kokatzen dira Fiare eta Coop57.

Ekonomia erreala eta herritarren mesedetara jarritako tresnak dira, ekonomiaren izaera soziala hobesten dutenak eta zerbitzua emateko prest daudenak. Huelk dira tokiko garapen ekonomiko eraldatzailearen inguruan egin daitezkeen zenbait ekintza, Coop57 eta Fiareren lan eta egiturekin elkarlanean (Garapena behar duten proposamenak dira):

- Finantza etikoen inguruko tokiko taldeak sortu eta indartu. Fiareren tokiko taldeak herritarrez hornitu. Ekonomia eraldaketaren aldeko herritarren sareak osatu, herri eta eskualdeetatik abiatuta. Fiareren tokiko taldeekin batera egin daiteke.
- Ekonomia sozialaren sareak aztertu eta trinkotu eskualdez eskualde. Tokiko ekonomia sozial sareak bultzatu. Coop57 Euskal Herriko sekzioarentzako oinarritzko taldeak bilakatu.
- Mondragon, REAS eta NER taldeetatik kanpo kokatzen diren kooperatibak saretu eta Euskal Herria mailan antolatu, aurrekoekin ere saretu. Orokorrean ekonomia sozial eraldatzailearen ikuspegi integral eta zabala txertatu.
- Finantzen inguruko Udalen ikuspegia formatu eta zentratu, konbenioen bitartez, baina batez ere tresna finantzarioen erabilpenaren bitartez.
- Eskualdetako Garapen Agentzien jardunean tresna finantzario alternatiboak txertatu, enpresa eredu eraldatzaileen sustapenerako bereziki.
- Eskualdetako Garapen Agentziekin batera ekintzailetasun eredu kooperatiboa, izaera soziala kontuan izango duena garatu.
- Tokian tokiko Elikadura Burujabetza sareen trinkotzean paper garrantzitsua jokatu dezakete, hauekin saretu, Katalunian gertatzen den bezala.
- Herritarren artean tresna finantzario alternatiboen ezagutza eta zabalpena sustatu.

Bide horretan ere Olatukoop Ekonomia Sozial Eraldatzailearen Sareak Udal eta tokiko erakundeentzat 10 proposamen egin ditu.[2]

Badago lana tresna finantzario berri hauek zabaltzen, baina esfortzuak merezi du, beharra badago eta.

Estekak:

[1] <http://etzi.pm/2015/09/finantza-etikoak-burujabetzarako-tresna-izango-dira/>

[2] <http://olatukoop.net/ekonomia-sozial-eraldatzailea-herrietan-bultzatzeko-proposamena/>

Irudia: “Genova-1810ca-acquatinta-Garneray-part-mura” by Ambroise-Louis Garneray – mio file. Licensed under Public Domain via Commons – <https://commons.wikimedia.org/wiki/File:Genova-1810ca-acquatinta-Garneray-part-mura.jpg#/media/File:Genova-1810ca-acquatinta-Garneray-part-mura.jpg>



Eztabaidak:

Benetako parte-hartzea enpresan: Lehiakortasuna edo demokratizazioa da helburua?

argia.eus / 2014-11-30



Maiz entzuten hasi gara enpresan parte-hartzea sustatu beharra dagoela. Zein da diskurtso horren sakoneko helburua eta zertarako bultzatzen behar da parte-hartzea?

Saioa Arando: Enpresa eredu ezberdin bat posible dela sinisten badugu, non erabakiak era horizontalago batean hartu daitezkeen, hor parte-hartzeak berak helburu izan behar du. Eredu kooperatiboak hori hasieratik ikusi zuen. Baina parte-hartzea erreminta bat ere izan daiteke, onurak ekartzeko langileengan (motibazioa handitzen du, absentismoa gutxitzen du, langilea enpresako parte sentitzen da) onurak ekartzeko erakundeengan (horrek guztiak produktibitatean eragin zuzena daukalako) eta onurak ekartzeko gizartearengan, bai ikuspegi sozial eta baita ekonomikotik ere: Enpresak produktiboagoak badira, garapen ekonomiko handiagoa eragingo dute ingurunean eta langileek enpresa barruan modu jakin batean moldatzen ikasten badute, enpresako ateak zabaldu eta gizarteratzean ere askoz era parte-hartzaileagoan jokatu dute.

Juanje Anduaga: Asko hitz egiten da parte-hartzeari buruz, baina entitate askotan ez da benetako parte-hartzea ematen. Ner-en kasuan parte-hartzea txertatuta dago harreman estiloan. Ner hitzak hori esan nahi du gazteleraz, (nuevo estilo de relaciones) harreman estilo berria. Guk parte-hartzea esaten dugunean langile guztien parte-hartzeaz ari gara, %100ena.

Beñat Irasuegi: Modan jartzen hasia da enpresako parte-hartzearen diskurtsoa. Parte-hartzeaz hitz egitea oso polita da, jende guzti-guztiari interesatzen zaio... eta horrek berak kezka sortzen digu Olatukoop inguruan gabiltzanoi: guztiari? Nola da posible guztiok parte-hartzearen ideian interesaturik egotea oso helburu ezberdinak

ditugunean? Benetako parte-hartzearen helburua izan behar du jarduera ekonomikoaren demokratizazioa. Susmoa dut, askotan parte-hartzearen diskurtsoaren atzean beste interes batzuk daudela. Hori da muineko eztabaida, benetako parte-hartzea nahi dugu, ekonomia jardueraren arlo guztietara zabalduko dena, edo zerbait estetikoa bilatzen dugu? Egungo enpresa ereduetan dauden akatsak lausotuko dituen parte-hartze bat?

Igor Ortega: Zein dira arrazoiak parte-hartzearen gaia gaur egun indarrean aurkitzeko? Badira hiru esparru nagusi: batetik gizarteak berak parte-hartzea eskatzen du, ez bakarrik enpresan, baita politika eta gizarte esparruetan ere. Bigarren arrazoi bat da efikazia, parte-hartzearen bueltan antolatutako ereduak gainera eraginkorragoak dira lehiakortasunaren, produktibitatearen ikuspegitik. Jada barneratua dugu egitura edo enpresa taylorista-fordista-mekanizista klasiko hierarkiko horiek ez direla efikazak egungo mundu globalizatua mugitzen den logiketan, eta lehiakortasuna galduz doazela. Aldiz, pertsonen gaitasunak, ezagutza eta sormena aktibatzen dituzten erakundeek balio erantsia irabaziz posizio hobea eskuratzen dute lehiakortasunean. Hirugarren gako dimentsio etikoa da. Saiok aipatzen zuen moduan, kontua da zer neurritan den parte-hartzea instrumentala efikazagoak izateko, edo zer neurritan den bere baitan helburu. Gizartean bada aldarrikapen bat enpresaren munduan ere dimentsio etikoa txertatzeko. Ez da kasualitatea ekonomia sozial solidarioak egun duen bultzada. Enpresari eskatzen zaio pertsona ardatz izatea, baliabide ekonomikoak eta erakundeak egon daitezela pertsonaren garapenaren zerbitzura eta ez alderantziz... Galdera da noraino den posible dimentsio instrumentala eta etikoa, biak uztartzea. Nik uste dut biak izango direla beharrezko. Martxan du Mondragon Unibertsitateak ikerketa bat eta frogatzen ari dira lotura handia dagoela produktibitatea handitzearen eta pertsonaren ongizatea, parte-hartzea eta inplikazioa sustatzen duten eredu horien artean.

S. Arando: Une honetan daukagun enpresa ereduak eman du eman beharrekoa. Aldaketa garai baten aurrean gaude. Aldaketa hori benetako transformazio kultural bat izan behar da. Ez da egun batetik bestera partxe batzuk jarri eta horrekin aurrera jarraitzeko proposamen bat. Transformazio kultural horretan pertsonak aldatu behar dira, hasteko. Baina ez pertsonak bakarrik, erakundea bera ere bai, kulturalki. Eta egunerokotasunean, bai maila operatiboan eta bai estrategikoan gauzak egiteko era ere aldatu egin behar da. Transformazio kultural horretan, parte-hartzea da mahai-gainean jarri behar litzatekeen lehenengo ideia. Egungo gizartean, parte-hartze gabeko enpresa eredu batek ez dauka lekurik.

Nola txertatzen da parte-hartzea enpresan?

J. J. Anduaga: Eredu parte-hartzailea dutela dioten entitateek zergatik jarraitzen dute egitura tradizionalarekin? Guretzat garbi dago egitura hori ez bada zeharo aldatzen, aldaketa erradikal bat eginda, eredu hori ez dela guztiz parte-hartzailea izango. Guk eredu baino estilo hitza erabiltzen dugu.

Nerren esperientzia dugu enpresetan aldaketa txertatzen. Ner group-en kooperatibak, elkarte mugaelkarte anonimoak (SA) ere badaude, eta estilo parte-hartzaile hau jarraitzen dute guztiek. Guri enpresa bat etortzen zaigunean esanaz “zuekin hastea nahi dut”, egiten dugun lehen gauza langile guztiek parte hartzen duten prozesua abiatzea da. Prozesu honen amaieran batzar orokor bat egiten da, eta bertan gutxienez langileen %85a ados egon behar da eraldaketa martxan jartzearekin. Horren ondoren ematen dugun lehen pausoa, aurreko egitura tradizional bertikal hori kentzea da. Eta lantalde autokudeatuak osatzen ditugu. Beraz, gure erakundeak desagertu egiten dira zuzendariak, tarteko mandoak edo enkargatuak, eta guztiz egitura horizontala eta transbertsala geratzen da, diziplina anitzeko lantalde autokudeatuez osatua.

I. Ortega: Nerrekoa eredu erradikala da eta gauza oso onak ditu. Hasieratik egiten da txip aldaketa eta aldeko jarrera badago kolektiboan, bidea erraztu egiten da. Asanbladan onartzen denetik, ez zait iruditzen ez dagoenik zuzendaritzarik, irakurria dudanez txertatzeko fasean zuzendaritza tinkoak daude, bestelako estilo batean garatzen den zuzendaritza eredu agian, baina asanbladaren eta jabeen erabakia denean eredu berri horretarantz doazela, harantz ez doazenek erabaki beharko dute jarraitu edo ez. Prozesu guzti hori lideratu egiten da. Eredu erradikal hori gauzagarria da kooperatibetan? Berezitasun batzuk badaudela iruditzen zait. Kooperatibetan bazkideak dira eta dagoen material humanoarekin egin behar da proiektua. Zailtasunak sortu daitezke langileen eta arduradunen kulturak bat ez badatoz egiteko modu berriekin. Ezagutzen ditut eredu martxan jarri eta atzera egin duten kooperatibak. Mondragon kooperatibetan prozedura gradualagoak erabiltzen ari dira eraldaketa egiteko.

J. J. Anduaga: Ner taldean kooperatibak ere badaude. Eta hauetan bazkideak izanik ere estilo hau aplikatzen dugu. Horregatik diogu posible dela egitura juridiko guztietan aplikatzea. Eta Igor, ez, zuzendaritzarik ez dago. Pertsona bakoitzari esaten zaio aurrerantzean zein izango den bere eginkizuna sortzen diren lantaldeetan. Orduan bereizten dira boterea eta autoritatea. Enpresetan zuzendaritzak boterea edukitzen du. Eta botereak ematen dizu aukera zuk nahi duzuna egiteko. Guk hori zeharo kentzen dugu. Kasu batzuetan gertatu da zuzendari batzuk joan egin direla, ez direlako gai sentitzen estilo berrian lan egiteko. Ez da euren estiloa, eta hori librea da. Inor ez da bidaltzen, eurak joaten dira eta aurrera jarraitzen du prozesuak. Normalean doazenak zuzendariak izaten dira, euren boterea eta galoiak mantendu nahi dituztenak. Guk esaten diegu ezetz, hori galdu dutela jada eta autoritatea irabazi behar dutela. Eta ez daude ohituta jendearekin egoten, jendearekin hitz egiten. Baina zuzendaritza tradizionala Nerren desagertu egiten da, erabakitze ahalmena lantalde autokudeatuek hartzen dutelako.

Langileek enpresan duten parte-hartzea orokorrean lau mailakoa izan daiteke: jabetzan, irabazietan, erabaki estrategikoetan eta gestioan, eta lanpostu mailako erabakietan partaide izatea. Zer da benetako parte-hartzea?

I. Ortega: Batetik dago lehen aipatutako ardatza, ea helburu instrumentalak ditugun parte-hartzea bultzatzerakoan, eta beraz, gakoa izango litzateke zer sistema jartzen dugun langileek gehiago parte-hartu eta ekarpen handiagoa egin dezaten, baina jabeak kontrola galdu gabe. Eta bigarren ardatza litzateke parte-hartzea bera helburu duena, bestelako parte-hartze eredu bat garatuko lukeena, nahiz eta jakin efikazia ere garrantzitsua dela. Nerrek erakutsi du arrakastarako elementu asko daudela bere ereduan. Baina Nerren mesfidantza sortzen dit jabetzaren kontzeptuak. Bada jende bat planteatzen duena organizazio horizontalen bidez, pertsona erdigune izanik, gai izango garela antolaketaren eremuan bakarrik eraginda gizarte emantzipatu eta hobe bat lortzeko. Bada dioenik kapitalismo eredu gairatzen ere iritsiko garela. Nik zalantzan jartzen dut hala ote den, jabetzaren ardatza txertatzen ez badugu parte-hartzean. Nerrek prozesu hauek martxan jartzean produktibitatea eta emaitzak handitu egiten dira, eta irabazi horien portzentajea da banatzen dena pertsonen kolektiboarekin, baina galdera da: eredu hau zer mantentzen da, produktibitatean igoera eta irabaziak dauden heinean bakarrik? Zer gertatuko litzateke une batean x arazoirengatik emaitzek ez balukete lagunduko, enpresa horren azken hitza jabearena denean?

J. J. Anduaga: Gure estiloan ez ditugu nahasten jabegoa eta gestioa, eta gure estiloan lan egiten duten langileek ere ez. Oraindik ez dugu mahai gainean jarri ere egin jabetzaren gaia, langileek ere ez dute planteatzeko beharrik sentitu. Irabaziak bai banatzen dira, emaitzaren %30, langile guztien artean. Estilo parte-hartzailea onuragarria bada,

jabearentzako ere onuragarria da. Adibide honekin azalduko dut estilo parte-hartzailea eta jabegoa bereizten ditugula: Elkarte Anonimoen kasuan (SA) jabeek nahi izan dezakete Ner grupen sartzea, baina guk jabeen erabaki hutsarekin ez ditugu onartzen Nerren. Esaten diegu: “Zuek bat gehiago zarete enpresan, orain langile guztiek nahi izan behar dute Nerren sartzea”. Informazioa ematen zaie langile denei zer garen eta zer egiten dugun, eta gure bi-hiru proiektu bisitatzera eramaten ditugu. Han egoten dira bertako langileekin galderak egiten, garbi eduki arte nola lan egingo dugun hemendik aurrera. Azkenik batzarrean erabakiko dute Nerren sartu edo ez, pertsona bat boto bat formularekin, nahiz eta jabe bakarrak eduki dezakeen jabetzaren %70 elkarte horretan. Kasu guztietan enpresaren emaitzak hobetu egin dira, beraz ikusten da estiloa onuragarria dela.

I. Ortega: Nire ustez parte-hartze integrala da helburua. Lanpostuko parte-hartzea ezinbestekoa da, erabakietan parte hartzea ere bai, eta jabetzaren gaineko parte-hartzea ere bai, sistema bera koherenteki sendoa izan dadin. Horretan kooperatiben ereduak asko dauka erakusteko. Zer da kooperatiba bat? Egitasmo kolektibo bat, geurea (jabetzan parte-hartzea). Lortzen ditugun emaitzak kide guztien inplikaziotik eta esfortzutik datoz, hortik bakoitzak bere eremuan eta gestioan daukan ardura (lanean parte-hartzea), emaitza horiek era ekitatiboan banatzen ditugu (irabazietan edo galeretan parte-hartzea), eta ondorioz, nola jabetza eta erronka kolektiboa den, erabakietan ere eredu demokratikoa erabiltzen dugu, bazkide bakoitzak bozka bat izanik (erabakimenean parte-hartzea). Hor dago kooperatibek izan behar luketen diferentziala, eta luketen diot, zeren potentziala hor dago, eta gero dator praktikan gauzatzean zer gertatzen den. Izaera juridiko soilak ez du zertan bermatu beharrik eredu horren arabera era koherentean garatzen ari denik. Badira kooperatiba batzuk ereduak, oso aurrera doazenak parte-hartzearen kontzeptu integralean, baina esango nuke kooperatibek oro har erronka handia dutela lanean parte-hartzean, eguneroko gestioan. Hori da kooperatibista batzuk esaten digutena: “Asanbladetan parte-hartzea asko baloratzen dugu baina egunero zortzi orduz ikusten duguna da gure lana nola antolatua dagoen”, eta hor ez bada diferentzial hori hautematen, oro har jendearen sentsazioa izaten da “ez dakit kooperatiba izan edo ez gehiegi ezberdintzen den”.

S. Arando: Nik ere parte-hartze integralaren alde apustu egiten dut. Jabetzan parte-hartzea ere beharrezkoa da eta onura asko ekar ditzake: Proiektuaren parte sentitzeko elementu bat gehiago da, erabaki estrategikoetan abaniko zabalagoa eskaintzen du, eta gizarteari ekartzen dion onura ere handiagoa izan daiteke. Adibide bat oso garbia da: globalizazioaren aro honetan, non enpresak alde batetik bestera mugitzen diren inolako hausnarketa sozialik egin gabe, hausnarketa ekonomiko hutsetan oinarrituta, enpresan jabegoa daukaten langileek hartuko luketen azken erabakia izango litzateke deslokalizatzea. Eta hori gizarte ikuspegitik oso garrantzitsua da. Are gehiago gurea bezalako ekonomia batentzat, non enpresa txiki asko dauzkagun eta kanpotik etor daitezkeen multinazionaleri ez zaien gehiegi kostatzen gure enpresak erosi eta txotxongiloak bagina moduan mugitzea. Parte-hartze integralaz hitz egiterakoan, nik garrantzia berezia ematen diot jabegoan parte-hartzeari. Eta alderantziz: ez du zentzurik jabegoan parte-hartzea sustatzeak eta horrekin batera ez sustatzea enpresaren egunerokotasunean eta erabakietan parte-hartzeko aukera.

J. J. Anduaga: Deslokalizazioaren gaiari erantzunez, Ner grupetik ez du ezer deslokalizatu. Gure produkzioa hemen egiten dugu eta kanpoan ere baditugu lantegiak. Eta ikusten dugu zenbat eta gehiago irten kanpora, lan gehiago sortzen dela bai kanpoan eta bai bertan. Beraz, ona dela kanpora ateratzea baina deslokalizatu gabe. Baina kanpoan lantegi bat irekitzeko erabakia ere batzarrean hartzen da, nahiz eta langile horiek enpresaren jabe ez izan, eta pertsona bat boto bat izanda. Zergatik? Erabaki estrategiko horrek langile guztiei eragiten dielako, kanpora joan behar dira arreta eskaintzera, batzuek hilabeteak edo

urteak pasatzera joan behar dute, eta abar. Horrelako eragina duten erabakia ezin da hartu pertsona guztiek parte-hartzeko aukerarik izan gabe.

B. Irasuegi: Azken hamabost egunotan “parte-hartze integrala” bitan entzun dut, foro ezberdinetan. Benetan gustatzen zaidan kontzeptua da. Olatukoopen horren gainean eztabaidatu genuen eta kontzeptua erabat barneratua genuen baina ez genion izenik jartzen, eta bete betean azaltzen duela uste dut. Parte-hartze integralak, nahita nahiez elementu batzuk izan behar ditu eta elkarren osagarri dira: gardentasuna, kudeaketa eta erabakietan funtzionamolde demokratikoak izatea... Olatukoopen beste elementu batzuk ere gehitzen dizkiogu: guztion ongizateari ekarpenak egitea, bizitzaren jasangarritasuna (bai pertsonena bai ingurumenarena), eta gizartean bertan parte-hartzea. Nire ustez, enpresa eredu berri batean derrigorrezkoa izan behar luke gizarterako onuragarri diren jardueretan lan orduak ematea. Zuzenean enpresako lan denbora bat dedikatzea inguruneari.

J. J. Anduaga: Ados nago horretan. Estilo parte-hartzailean lan egiten dugunok kontuan hartzen dugu ingurune batean gaudela eta ingurune horri zerbait zor diogula, inguruneak ere guri asko ematen digulako. Ner taldean gure etekinen %2,5a eskaintzen diogu inguruneari, baina zerbait garrantzitsuagoa ere bai: pertsona guztien (1.700 langile gara une honetan) lan denboraren %2. Gure ildo estrategikoetako bat da gizartearekiko konpromisoa. Ner Group 2010ean sortu bazen, jada 92 proiektu sozial jarri ditugu martxan eta proiektu guztiek daramatzate atzean gure pertsonen lan orduak.

B. Irasuegi: Parte-hartze integralaren kontzeptura itzuliz, Olatukoopeko kide izatea zer den definitzen duten lau oinarri dauzkagu eta lehenengoa, zentrala, jabetza da. Jabetza ulertuta sozietatean parte-hartzea kapitalarekin, lanaren erabakien jabe izatea, eta ezagutza eta lanaren jarduerarako beharrezko diren produkzio bitarteko guztien jabetza. Gu enpresa txiki eta hasi berria garenez (Talaios kooperatiba duela hiru urte sortu genuen), hasieratik jabetzaren oinarria zentroan jarrita gure dinamikan txertatu dezakegu. Ulertzen dut beste enpresa batzuetan hau egitea zaila izan daitekeela, edo trantsizio bat beharrezkoa izan daitekeela. Horregatik pentsatzen dut parte-hartze integral horretarako bideak hainbat fase izan ditzakeela. Baina benetako parte-hartze integrala bada helburua, beharrezkoa izango da dimentsio guztiak garatzea. Interesgarri iruditzen zait Nerrek egiten duena, langileek jabetzan parte-hartzerik ez daukaten enpresetan ere parte-hartze dinamikak ezartzea, baina interesgarriagoa irudituko litzaidake estrategia horretan aurrera begira jabetzarako bidea egitea.

Kezka sortzen zait azken aldian asko entzuten den kontzeptu baten bueltan: “Parte-hartze finantzarioa”. Oso kontzeptu anglosaxoia da, Europatik datorrena eta parte-hartze finantzarioa jabetzarekin parekatzen du: “Parte hartu finantzarioki enpresan, erosi akzio batzuek eta horrekin enpresaren jabe zara”. Eta inondik inora ez da hala. Lana eta kapitalaren arteko konfrontazioan sartuko ginateke, jabetza benetan zer den eztabaidan. Euskal Herrian sustatu beharko genituzke jada baditugun ereduak, lanari kapitalari baino garrantzia handiagoa ematen diotenak. Kapitalari ezin diogu eman jabetzaren ideiarene muina. Jabetzaren ideiarene muina pertsonak dira, pertsonak egiten duten lana eta gizarteari egiten dioten ekarpena. Ez gaitezen dogmatikoak izan jabetzarekin zeren bide asko dago egiteko, baina eman diezaiogun daukan garrantzia.

Euskal Herrian partaidetzan oinarritutako jarduera ekonomikoen tradizio errota dugu. Baina badator beste egosaldi bat, parte-hartzean sakontzeko beharra sumatzen da. Ikuspegi kritikotik azter dezagun bilakaera: egunerokoan langileek duten parte-hartzea indartzen edo ahultzen joan da?

I. Ortega: 50eko hamarkadan Mondragoneko kooperatibak sortu zirenean, bulkada eraldatzaile oso indartsu batetik sortu ziren, helburu nagusi batzuekin: enpresaren metabolismoa iraultzea, pertsonetan oinarritutako organizazioak garatzeko. Horrekin lotzen dira demokraziaren kontzeptua, lanaren subiranotasuna kapitalaren gainetik jartzea, parte-hartzearen kontzeptua hezurramitzen da... ametsa zen pertsona helduago, subirano, autoeratuago bat garatzea. Eta pertsonaren duintasunean oinarritutako litzatekeen enpresa egitura batzuk garatzea. Beraz, egun sumatzen den dimentsio etikoaren aldarria neurri batean ase daiteke sorrerako ideia horietatik. Bigarren helburu nagusia zen enpresaren funtzio soziala eraldatzea. Kooperatibak bilakatzea komunitatearen garapenerako bitarteko eta erreminta. Hasieran kooperatibek iraultza ekarri zuten, batez ere demokrazia txertatu zutelako enpresa egitasmoan, erabakimenarekin eta jabegoaren kontzeptuarekin. Baina hasiera horretan bertan enpresa antolatzekeo eredu taylorista eta fordista kopiatu zituzten, garai hartan efizienteenak zirelako. Mondragon Kooperatiben helburua bazen baita ere edozein merkatutan onenekin lehiatzeko gai izatea. Beraz, dualidade bat zegoen: sozio-estruktura deitzen dena, parte-hartze instituzionala alde batetik; eta tekno-estruktura edo lan kontuetan parte-hartzea bestetik. Demokrazia praktikatzeko asanbladetatik kontseilu errektorea hautatuz eta ondoren kontseilu errektoreak gerentzia hautatzen zuen. Baina gerentziatik behera aplikatzen zen lan antolakuntzaren espiritua zen diziplina gogorra, inor ez zedila hasi eztabaidatzen edo zalantzan jartzen gerentziatik zetozen erabakiak.

Laneko parte-hartzean bilakaera handia izan da eta badira adibide interesgarriak, talde lanak, hobekuntza taldeak, kalitatearen inguruko ereduak... Agian kooperatibetan dagoen premia nagusia justu parte-hartze instituzionalaren eremu horretan dago, berrikuntza premia nabarmena da. Zeren kooperatibak izugarri handitu dira, 100 bazkide izatetik 1.600 bazkide izatera pasa denik bada, eta komunikazio prozedurak indartu badira ere, ia ia jarraitzen dugu funtzionatzen sorreran pentsatu ziren parte-hartze egiturekin. Bada paradoxa kooperatibak egun ez ote dauden atzeratuta non eta erabakimenaren parte-hartze moduetan.

S. Arando: Parte-hartze instituzionalerako, edo organoetan parte hartzeko, uste dut sorreran zeuden kanalak egun ere gure esku ditugula. Baina zalantza dut kanal horiek duten potentzialitate guztia baliatzen dugun langileok. Aurreko belaunaldiek gehiago baliatu zituzten guk baino? Beste belaunaldi bat gara, eta belaunaldi bakoitzak dituen espektatibak ezberdinak dira. Kooperatibak sortu ziren garaian, ikusita inguruan zer enpresa eredu zeuden, aukera berri bat ireki zitzaizen kooperatibetako langileei. Ilusioz aprobetxatu zuten. Egungo belaunaldia beste bat da, kooperatibetan sartu garenean organoetan parte-hartzeko aukera hori naturaltasunez hartu dugu, eta baliteke lehengo belaunaldiek zeukaten ilusioa transmititzeko gai ez izana. Baina hori gure esku dago. Gu garenez kooperatiba, guk daukagu erreminta guk nahi dugun kooperatiba sortzeko. Horrekin lotua dago Igorrek aipatutako berrikuntza kooperatiboa. Guk erabaki behar dugu zer behar dugun, eta guk moldatu behar dugu hori gure modura.

Kudeaketan parte-hartzeari dagokionez, asko egin dugu aurrera azken urteetan. Arizmendiarretak organoetako parte-hartzean oinarritutako eredu enpresariala sortu zuen baina bere gestio eredu oso autoritarioa zen. Garai hari zegokion eredu bat. Orain ez dakit ongi egiten dugun edo ez, baina behintzat eredu hartatik ihes egiten saiatzen gara.

B. Irasuegi: Olatukoopen badugu kezka memoria kooperatiboa etengo ote den. Mondragon Kooperatibaren inguruko langileek bizi dute eredu kooperatiboa, beren kulturaren parte da. Baina hortik kanpo ez dago harremanik. Eta ez dago harremanik Mondragonetik kanpo sortu izan diren eredu kooperatibo parte-hartzaileekin ere. Krisiarekin kooperatiba eredu bera dudan jarri nahi izan da. Ez dezagun memoria hori galdu eta osatu dezagun Mondragon baino lehenagoko esperientzia kooperatiboekin: gerrak suntsitu zuen autohornikuntzarako sistema mutualista hura, agian berreskuratu dezakeguna egun ere oinarritzko beharrak asetzeko. Edo atzerago joanda, arrantzale kofradiak direla edo baserritarren mutualismoa oso eredu interesgarriak dira. Memoria hori guztia ikusezin dago. Egun ere badira ehunka enpresa kooperatibo (ez dutenak zergatik kooperatiba izan) gizartean ezagutzen ez direnak. Nire kezka da bidean memoria galtzen ari garela eta ez garela gai esperientzia hauei ikusgarritasuna emateko.

J. J. Anduaga: Ados naiz Beñatekin, badira kooperatibak Mondragon taldetik kanpo ere. Gauza bat da kooperatiboa izatea eta beste bat da kooperatiba talde handi baten parte izatea. Eta talde handi horietan enpresa guztiek ez dute parte-hartze maila bera eta parte-hartzea sustatu edo ez, zuzendaritza osatzen duten pertsonen estilo eta borondatean datza, ez egitura juridikoan. Kontuan izanik Ner barruan badirela kooperatibak eta kooperatibak ez direnak, eta gutako batzuek kooperatibismoa bizi izan dugula, zera azpimarratu nahi nuke: parte-hartzea benetakoa izateko erakundearen proiektua gardena izan behar da. Guztiz gardena. Dagoen informazio guzti-guztia jarri behar da pertsona guztien eskura. Ezagutu izan dut kooperatibetan informazio maila ezberdinak egon izan direla: informazio bat zuzendaritza talderako eta halako batzorderako, informazio hori murriztuta hurrengo mailarako... Hori ez da informazioa ematea. Informazioak gardena izateko berdina izan behar du guztientzako, pertsonak erabakiak hartzerakoan era kontzientean hartu dezaten.

Politikan asko gertatzen da, “behin bozkatu eta hurrengo lau urtetan ez daukazu zer esanik!”. Enpresan berdin: hautatzen dituzu organoak eta organoek erabakitzen dute hurrengo lau urtetan zuek. Eta askotan, pertsonak ez dutenez informazio osoa eduki, ez daude organo horiek hartutako erabakiekin ados, edo baita ere batzuetan behartuta sentitzen dira erabaki oso garrantzitsu bat hartzera nahikoa informazio izan gabe. Eta gero zer gertatzen da zerbaitek gaizki irteten badu? Segidan hasten direla bata besteari errua botatzen. Hausnarketa sakona egin behar da, benetan zer parte-hartze maila daukagu erakunde bakoitzean?

Enpresaren tamainak inporta du?

J. J. Anduaga: Tamainak guretzat ez du inporta parte-hartze estiloa sustatzeko. Ner barruan handiena 500 langileko enpresa da eta txikiena 6 pertsonakoa. Ez daukagu egitura bertikalik, eta lantaldeka antolatzen gara. Ez daukagu zuzendaritzarik, pilotaje lantaldea baizik. Nortzuk hartzen dute parte pilotaje lantaldean? Lantalde bakoitzeko liderrek. Eta liderra lantaldeak berak hautatzen du. Beraz, proiektu handiengan 60 lantalde badaude, 60 pertsonak osatzen dute pilotaje lantaldea. Pilotaje lantalde hori da beste leku batzuetan zuzendaritza esaten diotena. Eta koordinatzaile orokorrak koordinatzen du pilotaje lantaldea.

I. Ortega: Nik uste dut baietz, dimentsioak konplexuago bihurtzen duela parte-hartzea. Nire ustez Mondragonen erronka da nola txertatzen den parte-hartze integrala gero eta konplexuago eta handiagoak diren kooperatiba batzuetan. Bada dioenik kooperatiba baten neurria gehienez 500 langilekoa behar duela, hortik aurrera ez dagoela modurik eredu kooperatibo koherente baten arabera garatzeko. Merkatu logikak eskatzen du dimentsionatzea, beste gauza bat da zer nolako dimentsionatze eredu hartzen den:

egitura handitu eta handitu behar den edo bestelako formulak baliatu. Gogoeta hori badabil Mondragonen bueltan, batez ere Fagor Etxetresnak izan duen krisiaren haritik. Halaxe esaten zidan 1.600 bazkide dituen kooperatibako presidentek: “Nik ez dakit zer egin behar dudan parte-hartzea hobetzeko. Nik asanblada gehiago egin ditzaket! Baina horrek dakar aurretiazko hitzaldi informatiboak biderkatzea, eta zer egin behar dut, produkzioa gelditu, noiz eta konpetentzia hasi denean asteburutan ere produkzioa handitzen?”. Badira dimentsioari lotutako konplexutasunak, horrek ez du esan nahi urratsak eman ezin direnik. Pentsa, aipatutako kooperatiba handi horretan langileen ordezkari gune nagusi den kontseilu soziala 50-60 langileko lantaldea da. Hori beste enpresetan asanblada oso bat da. Presidente hark jarraitzen zuen esaten: “Nik 2 minutuz hitza eman behar badiot bakoitzari, bilera joan zait!”. Badira zailtasunak, berrikuntza kooperatiboaren bidez gainditu beharrekoak. Joera bada unitate autonomoen logikara joatea: Inplikatuak hartu ditzatela erabakiak autonomiaz, dagokien erabakigunean. Hor dago minifabriken antolamendua, enpresa handiak negozioka edo atalka bereiztekoa. Aipatutako kooperatiba handi honetan urratsak ematen hasi dira, sekzio batzuetan autogestioaren logikaz funtzionatzeko dinamikak txertatzen ari dira, eta helburua da hori enpresa guztira zabaltzea.

B. Irasuegi: Tamainak bai, inporta du eta asko. Enpresa handiagoa denean askoz estrategia konplexuagoak erabili beharko dira parte-hartzeko. Daukaguna daukagu, eta hauetan parte-hartzea sakondu behar dugu, batetik, baina bestetik jar gaitezen etorkizunera begira: Sortu behar den enpresak zer neurri izan behar du? Ekonomiak behartutako tamaina, hazkundean oinarritua? Edo gure gizartearen beharren arabera hazkunde banatua oinarritua? Hazkunde banatua esaten diogu beharren arabera elementu berriak sortu eta sarean artikulatzeari. Kooperatiba eta elkarte txikiak saretuta ehun ekonomiko parte-hartzaile orekatuagoa sortuko dugu, merkatu logikan sortutako erakunde handiekin baino.

Enpresak kulturalki eraldatzeko liderraren figura azpimarratzen da maiz. Zer da “lider” bat?

S. Arando: Liderra eta zuzendaria edo arduraduna gauza ezberdina dira. Arduradun batek ardura batzuk ditu hierarkia edo postu batek ematen dizkiolako. Pertsona bat liderra da bere lantaldeak onartzen duelako. Lantaldeak erabakitzen du zein den liderra. Lider horrek arduradun baten funtzio ezberdinak ditu. Zein da erronka? Ziurrenik etorkizunean arduradunak egoten jarraituko dute, baina arduradun horiek lider ere izan beharko dute. Konfiantzan oinarritutako harremanetik sortutako figura da liderra. Eta konfiantza dagoen unetik, hor parte-hartzea eta iritzia ematea natural ateratzen da.

J. J. Anduaga: Ados nago, oso argi azaldu duzu. Hemen edozeri esaten zaio lider, egitura bertikalean goiko postua okupatzen duenari. Eta hauek askotan ez dira liderrak, gestoreak dira. Gerente batean bereizi behar da ea benetan lideratzen duen proiektua edo kudeatu bakarrik egiten duen. Kudeaketa estilo tradizionalen gestioa kontrolatzen da, eta sarri gestionatzen da edo jarraipena egiten zaio alde kuantitatiboari soilik, nahiz eta helburu kuantitatibo eta kualitatiboak eduki. Hor ibiltzen dira gerenteak zenbakiak jarraitzen zoroaren pare. Beti iragana aztertzen, aurreko hilean zelan joan den gestio plana... Kotxea gidatzen atzera begira, aurrera begiratu beharrean. Nahiz eta jarraipena egiteko indize kuantitatiboak eta kualitatiboak eduki behar ditugun, Ner grupen garbi dugu benetako arrakasta alde kualitatiboa kudeatzeko moduan dagoela, intangiblea kudeatzeko gaitasunean. Horrek zerikusi handia du harreman estiloarekin. Lantegi barruko eta kanpoko jendareekin harreman estilo ezberdin bat landuta, aukerak sortzen dira. Eta ez da aukerarik galdu behar. Beraz, hedatu behar direnak harremanak dira, pertsonen arteko harreman eta esperientziak partekatuz sortuko direlako aukera berriak, eta hauek

aprobetxatzen jakinez gero etorkizun hobea. Eta ez hainbeste barrura begira egon, gestore askok egiten duten moduan, barruan gertatzen dena kontrolatzen. Lider batek egin behar du denbora gutxi bere bulegoan eta pila bat kanpoan. Beretzat garrantzitsuena pertsonak badira benetan, pertsonekin eman behar du denboraren %80. Sareak josten ibili behar du.

I. Ortega: Gizarte mugimenduen kulturatik gatozenok, “liderra” hitza entzun eta halako atzerako bat sentitzen dugu. Ni oraindik ez naiz ohitu kontzeptu horretara. Baina ikusten diot birtualitatea. Ados nago esan duzuenarekin, uste dut dela kontzeptu bat sortu dena ohiko jefe autoritarioaren kontzeptua zeharo aldatzeko. Jada ez da nahiko bere posiziotik aginduak ematea, autoritatea irabazi behar du eta trakzio lana egin bere lantaldean, baina taldeak efizientziaz aritzeko norbaiti dagokio proposamenen sintesi lanak egitea edo momentu puntualetan arduraren zama hartzea... Uste dut parte-hartzea eta horizontaltasun osoa ez dela gauza bera. Lider izan, arduradun, edo koordinatzaile deitu, pertsona horiek ezinbesteko figura dira. Erronka da nola ahalik parte-hartzaileena izan efikaziarekin uztartuta. Mugimendu autonomoetatik zetorren argentinarrak bati irakurri nion eurek zeukaten arazoa zela “egiturarik ezaren tirania”. Hainbesteko horizontaltasunak zekarren halako inefikazia haien gizarte mugimenduetan, eta azkenean jendea uxatu, nekatu eta erre egiten zen bidean.

B. Irasuegi: Ni ere beste mundu batetik nator eta liderraren diskurtsoarekin ez naiz batere komodo sentitzen. Nik beste hitz bat asmatuko nuke eta euskaraz, arrotza egiten zaidalako kontzeptualki. Liderraren diskurtsoak sortzen didan kezka da ez ote duen elikatzen gizarteko botere harreman injustuen eskema, beste eskala batean. Efikazia behar delako onartzen dugu delegazioa. Sentsazioa da beti amaitzen dugula eredu injustu ez-parekideetan. Beste eredu bat asmatu behar dugu, harreman parekideetan oinarritua. Ni ere kezkatzen nauen beste aldea inoperantzia da, “izan gaitetzen denak mediokreagoak inor nabarmendu ez dadin, ez dezagun proiektu eraldatzailea gauzatu, denok maila berean mantendu gaitetzen”. Bi polo horien artean kokatzen naiz. Asko sinisten dut aktibismoan. Enpresa eta ekonomia erakundeetan aktibistak behar ditugu. Gizarte mugimenduetan egia da batzuetan badagoela liderrarekiko erreakzioa eta ukazioa, baina baita ere egia da gizarte mugimendu eta mugimendu aktibista askotan lider naturalak sortzeko auto-eraketa sistemak badirela. Bada errekonozimendu soziala lortzen duen jendea hainbat faktoregatik: harremanetan ona delako, besteen arteko erlazioak sustatzen dituelako, bere arloan bereziki pasioz lan egiten duelako eta aktiboa delako lan horretan... Hori da lider bat. Lider deitu behar diogu, izen bat asmatu behar dugu? Baina multiliderrak izan behar dira enpresak. Eta beti bilatu behar da jende hori ordezkagarria izatea. Ondoan izan ditzala beste aktibista batzuk ere, bera falta denean pausoa emango dutenak eta liderraren atzean gordeko ez direnak. Hori baita beste arazo larria, hasieran oso soziala da dena, lider naturala dugu, baina behin liderra izanda beste pertsona guztiek pauso bat atzera egiten dute erabakiak beste batek hartu ditzan. Liderrari kontra-boterea sortzea garrantzitsua da, eta kontra-boterea da jende aktibistek osatutako multzoak izatea.

Enpresetan, erakunde publikoetan, nazioartean, gaia pil-pilean da. Zergatik hitz egiten dute orain parte-hartzeaz guztiek? baita langileen eskubideak hutsera murriztu dituztenek ere? Nola ulertzen da “pertsonak gara motorra” esaldia, egungo prekarizazio egoera larriarekin?

I. Ortega: Enpresen eraldaketa bai edo bai etorriko den olatua da. Arrazoietakoa bat izango da gure sare industrialak lehiakortasun ikuspegitik izan dezakeen diferentzial konpetitiboa norabide horretan datorrela. Egun Asiatik datozen enpresak jada ez dira bakarrik lan esku merkearen konpetentzia, pixkanaka badira teknologia mailan ere lehiatzeko gai. Gakoa da zer zentzutan gidatu edo lideratuko den eraldaketa. Egin liteke oso zentzu neoliberallean eta horrek eramango gintuzke parte-hartzearen oso zentzu instrumental horretara, eta

iruditzen zait hori dela nagusitzen ari den mezu orokorra: Langileei esan konturatzeko nola datorren panorama eta ahalegin handiagoa eskatu enpresari eusteko. Edo eraldaketa prozesua lideratu daiteke beste zentzu batean, ohiko enpresaren kontzepzioa eraberrituz, pertsonen ahalduntzean eta lurraldearekiko konpromisoan urratsak emanez, eta bide batez enpresa humanoagoak garatuz. Uste dut euskaldunok Espainiako Estatua ezartzen ari den eredu produktibotik aldentzeko premian gaudela. Lehiakortasuna eta kostuen murrizketa hutsean oinarritzen den eredia da “marca España”. Baina horrek prekarizazioa eta atzerakada soziala baino ez dakar. Beste eredia, ongizatearen apustuari eutsi ahal izateko, balio erantsia, berrikuntza eta garapenean oinarrituko den sare industriala garatzea da. Baina honek enpresaren konfigurazioan aldaketa ekarri behar luke, bi zentzutara: balio erantsia badakigu pertsonen sormenari lotua dagoela eta bere ezaugarria da pertsonari barrutik atera behar zaiola, inork ezin ditu behartu inplikatzera edo buruan dutena enpresaren alde jartzera. Pertsonak inoiz baino beharrezkoagoak dira eta, beraz, langileen estatusa enpresan berrikusi beharko da: zeintzuk lirake eredu sinesgarri baterako lan baldintzak? Eta bigarrenik, enpresen funtzio sozialaren eraldaketa ere ekarri beharko luke: gaur badakigu, enpresek ez dutela era isolatuan lehiatzen munduan. Enpresak eta kokatuta dauden lurraldeen baliabideak dira lehiakor egiten gaituztenak: Lurralde horretan dagoen ezagutza, pertsonen abilitateak, erakunde publikoekin dauden sinergiak, eta abar. Beharrezko baditugu lurraldearen baliabideak, beharrezko badugu pertsonen inplikazioa, ezin da hori guztia hartu apropiazio pribatu eta pertsonala egiteko. Bi zentzutara aldatu behar da enpresa: parte-hartzea irekita eta enpresaren funtzio soziala berriz indartuta. Horrek eramaten gaitu luzera begira, enpresaren jabetza kapitalean bakarrik oinarrituko den enpresa eredia erlatibizatzen.

S. Arando: Egungo enpresa eredia krisian dago. Orain arte enpresen lehiakortasun iturri gisa hartu dira nazioartekotzea, berrikuntza... baina guzti horiek agortu daitezkeen iturriak direla frogatu da. Pertsonak dira agortezin diren lehiakortasun iturri bakarra. Benetan gure organizazioak irautea nahi badugu pertsonetan oinarritutako enpresa eredu berriak behar ditugu, beraien potentzialitate osoa enpresarenarekin bat egingo duten ereduak. Parte-hartzearen onurak alde askotatik justifikatu daitezke baina irakurketa partzial eta instrumentalak egitea arriskutsua iruditzen zait. Erraz esan daiteke parte-hartzeak produktibitatea handitzen duela, gatazka laborala gutxitu dezakeela, baina hori ez da pertsonetan oinarritutako enpresa eredu batek bilatzen duena. Askoz kontzeptu zabal eta aberatsagoa da. Organizazioak pertsonen osatuta daude eta pertsona horiek ongi artikulatzeak emango dio gure organizazioari etorkizuna.

J. J. Anduaga: Nola da posible pertsonak direla oinarria esatea eta prekarizazioa ugaritzea? Zertan datza Nerren harreman estilo berria? Balore konkretu batzuen aplikazioan. Balore horien artean dago “inongo kaleratzerik ez”, nahiz eta gauzak gaizki joan une jakin batean. Ordu estrak ez dira kobratzen, beraz, ordu estrak gutxitu behar dira. Beste balore batzuek dira elkartasuna, erabakiak elkarrekin hartzea, eta lehenengoa, etika. Beraz, edozein enpresak gauzak gaizki doazelako langileren bat kaleratzen badu, automatikoki Nerretik kanpo geratzen da. Badira gorde beharreko baloreak eta balore horiekin ematen zaio pertsonari dagokion errespetua.

B. Irasuegi: Irudituko zaizue gauza askok jartzen nautela alertan, baina tamalez “pertsonak” entzuten dudana aldiro ere alertan jartzen naiz. Tamalez. “Pertsona zentroan” eta diskurtso horiekin hitza edukiz husten ari delako. Ez dago ezer okerragorik balio positibo bat dena helburu ez positiboetarako erabiltzea baino. Pertsonen diskurtsoarekin hori gertatzen ari da. Oso paradigmatikoa da Adegik erabiltzen dituela guk hemen darabiltzagun kontzeptu berdinak justu erabat kontrakoa dena esateko, ekonomiaren kontzepzio erabat neoliberalarekin. Horrek ez du esan nahi “pertsona zentroan”, edo pertsonen aldeko ekonomiaren diskurtsoa erabili behar ez dugunik, egin behar duguna da

kontzeptu horiek berreskuratu edo berriro edukiz bete. Gerra dialektiko horretan posizio ahulena daukagu: ez gara eredu ekonomiko zentrala edo gizartean hegemonia duena. Hitzak edukiz bete behar ditugu gure ereduak zentrorra ekarriz. Erritmo eta estrategia ezberdinak ditugu baina baditugu partekatzen ditugun ideiak: Benetako parte-hartzea sustatzea bada gure helburuetako bat. Pentsatu beharko dugu nola ekarri hori zentrorra eta ideien bataila borrokatu. Olatukoopen argi dugu horretarako beharrezkoa dela beste eredu ekonomiko bat zentroan jartzea. Erabat lotzen dugu gure funtzionatzeko modua ekonomia sozial eraldatzailea deitzen dugunarekin: ekonomia eredu justuago bat, berdintzaileagoa, pertsonen ongizatea eta ingurunearena zentroan jarriko duena... Alegia, ez dugu planteatzen enpresak nolakoak izan behar duten bakarrik, baita zer ekonomia eredu bilatzen dugun ere. Planteamendu hori ere izan dadila eraldatzailea, parte-hartzailea... eraman dezagun hau guztia eredu ekonomikora. Oraingoz gutxiengoa izango gara, baina gizartean ideia horiek pil-pilean daude, demokratizazio behar bat badago, baliatu dezagun egoera eredu propioa sortzeko.

I. Ortega: Ez dakit hain gutxi garen! Bi ezaugarri hartzen baditugu, enpresen bokazio soziala eta antolaketa eredu parte-hartzailea, lehen kolpean hainbat proiektu etortzen zaizkit burura: Mondragon zein Mondragon kanpoko kooperatiba ezberdinak, ekonomia sozial solidarioaren bueltan hedatzen ari diren egitasmu berritzaileak (Reas, Olatukoop, Coop57 sareen erakoak), nekazaritzaren inguruan sortzen ari diren kooperatibak (Ipar Euskal Herriko eredu aipagarriekin), Ner inguruko enpresa sarea, ikastolen mugimendua, euskarazko hedabideak... Horiek guztiak dira bestelako ekonomia baten ernamuina. Arazoa da bakoitza bere baitara bilduta dagoela eta ez daukagula bestelako ekonomia bat sortzen ari garenaren autokontzientziarik. Baina guztiak elkarrekintzan jartzea lortuko bagenu, esango nuke aukera genukeela nazioartean Euskal Herria kokatzeko bestelako ekonomia eredu baten erreferentzia gisa.

Mahaikideak

Juanje Anduaga, Ner Group

Oñati, 1959. Hainbat lan egin ostean, 1989an Irizar kooperatiban hasi eta 21 urte eman zituen bertan Pertsonetikiko Harremanak Koordinatzeko arduradun. kargu hori betetzeaz gain, 14 urtez Irizarko presidente izan zen. 2010etik da Ner groupeko Gizarte Konpromisoko Koordinatzailea.

Saioa Arondo, Mondragon Unibertsitatea

Aretxabaleta, 1975. 2008an Deustuko Unibertsitatean Tesi Doktorala defendatu zuenetik, Mondragon Unibertsitatean dihardu lanean. Egun Enpresagintza Fakultateko "Pertsonak Lankidetzan" ezagutza arloko koordinatzailea da. Azken urteotan pertsonetan oinarritutako erakunde ereduak ikertzen aritu da.

Beñat Irasuegi Ibarra, Talaios kooperatiba


Errenteria-Orereta, 1978. Talaios kooperatibako kide. Software eta hardware librea garatzen, formazio teknologikoa ematen, eta ekonomia sozial eraldatzailea sustatzen ematen dituzte orduak. Olatukoop sarea sortu dute eta Fiare Banca Etica eta Coop57n modu aktiboan parte hartzen dute.

Igor Ortega Sunsundegi, Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegia

1975ean Bilbon jaio eta Arrasaten bizi den hondarribiarra. Egun Mondragon Unibertsitateko Lanki ikertegiko kide eta ikerketa arduraduna da. Bi seme-alaben guraso. Bagara elkarteko kontseilu errektoreko kide, eta Ereindajan ekoizle eta kontsumitzaile kooperatibako partaide.

Nola jabetu herritarrek merkatuak eta estatuak urrundutako erabakimenaz

argia.eus / 2016-02-28



Herritarrek gero eta parte-hartze zuzenagoa eta erabakimen handiagoa eskatzen dute bizitzako alor denetan. Aldiz, teknologia berriek eta kultura demokratikoak beste eredu baterako bide ematen badute ere, iraganeko estatu egiturak ditugu, ordezkariak sisteman eta erabaki eskubidearen delegazioan oinarrituta. Ordezkariok bozka biltzerakoan eman zuten hitza jaten dutenean edo mugimendu sozialei entzungor eginez jokatzeko dutenetan, erakundearen legitimitatea da ahitzen dena (“ez gaituzte ordezkatzeko” bihurtu da hantzen hementika leloetako bat). Eta bitartean gero eta lotsagabeago ari zaigu begien bistan gelditzen estatu egituretan ere agindu, herritarrok hautatu ez ditugun indar finantziario erraldoiek agintzen dutela. Merkatuan ez dira erabakiak demokratikoki hartzen, eta parte-hartzeko aukera ere gero eta jende olde handiagoari ukatzen dio: kapitalismoak gero eta jende gehiago uzten du sistemaz kanpo, bizitzeko oinarritzko baliabiderik gabe eta bizitza egituratzeko ditugun erakundeetan ahotsik eta benetan parte-hartzeko aukerarik gabe. Komunaren ideiak laguntzen digu alternatibak planteatzen, bestelako logikekin praktikan diren ereduak ikusten.

erantzuteko ditugun egiturak krisian daude? Estatu-merkatua-familia eskema agortuta dago?

E. Etxezarreta: Eskema agortuta? Nik uste dut ezetz. Eskema honek oso ongi funtzionatzen dio sistema kapitalistari. Eta alternatiba pentsatzen hasita, ez zait okurritzen hiru esparru horiek (estatu-merkatua-familia) barnean hartuko ez lituzkeen ezer. Garaian garaiko moldaketekin, eskemak beti erantzun dio kapitalaren metatze logikari. Badirudi azken 30 urteotako metatze logika izan dela merkatua halako ente orojale bat bihurtzea; merkatuak ekoizpenaren eremua gaintu du eta pertsonen bizitzaren esparru guztiak hartu nahi ditu: osasuna, gizarte zerbitzuak, gorputza, lan

harremanak, harreman pertsonalak... eta merkatuak zabaltzeko behar duena estatu minimo bat da, ia-ia estatu zaindari bat, justizia, polizia eta gutxi gehiago antolatzen dituena. Eta estatuak beregain hartzen ez dituen gizarte zerbitzu horiek guztiak familiari itzultzen dizkio bueltan.

N. Elortza: Eskema horretan laugarren esfera bat falta da, hemengo errealitatean nahikoa garatuta dagoena: autogestionatutako eremuak, kooperatibagintza esperientziak, eta herrigintzako esparruak. Esango nuke indar komunitarioa hain handia ez den lekuetan, krisiak eragindako miseriak handiagoak direla, ikuspegi komunitarioak babes handiagoa ematen duelako. Baina urteotako jendartearen bilakaeraren ondorioz, sistema komunitario nahiz ez-komunitarioan hasi dira beste behar batzuk sortzen: demokratizazio ekonomikoa eta erabakitze esparrua handitzea. Eta egituren parte-hartzeari lotuta, bada kolektibo bat oso prekarizatua dagoena, halako parametrotan hitz egiten dugunean sarri alde batera uzten duguna. Erresistentzia eta erresilientzia esparruak biderkatzen ari diren arren, badago baztertuta eta zapalduta dagoen kolektibo hori. Eta horri erreparatu beharko diogu benetako aldaketa bat sortu nahi badugu.

A. Santesteban: Ez dakit familia krisian dagoen, ez dakit estatua krisian dagoen eta ez dakit merkatua krisian dagoen. Gure bizitzak antolatzeko eredu bezala edo alternatiba planteatzerako orduan bai, guretzako ez dira kategoria baliagarriak. Baina berez familiaren ideologiak, estatuaren ideologiak eta merkatuaren ideologiak indar handia dute oraindik. Gero eta aldarrikapen handiagoa dago euskal estatuaren inguruan, gure demokrazia egituratzeko funtsezko egitura politiko eta ekonomiko modura... Gaurko estatu eredu, segur aski ez da alternatiba egituratuko lukeen estatua. Baina estatua da ahalmen politikoa eskuratzeko daukagun modu bakarra. Eta gure bizitzak egituratzeko, halabeharrez behar dugu ahalmen politikoa eskuratzeko. Estatua birpentsatu behar dugu eta leku bat eman behar diogu gure alternatibaren esparruan. Adibidez, feminismitik asko ari da teorizatzen estatu feministaz eta funtzionatzen ari da artikulaziorako elementu gisa: gero eta feminista gehiago artikulatzen dira estatu propio baten beharrarekin. Ulertzen dutelako estatua dela ahalmen politikoa, boterea hartzeko modua, legeak egiteko modua eta baita lege horien bidez familia egitura edo merkatu egitura aldatzekoa. Adibidez, aukera ematen digu hirigintza berri bat pentsatzeko, non ez diren familiaren araberrako etxebizitzak eraikiko, baizik, beste egitura batzuk oinarri hartuta. Edo aukera ematen digu merkatuaren araua aldatuko duen publikotasuna pentsatzeko, edo ekonomia misto bat sortzeko...

E. Etxezarreta: Nik ere Elortzak aipatu duen laugarren esparruari heldu nahi nioke: nola deitzen zaion ez dakit, hirugarren sektorea, ekonomia soziala, ekonomia sozial solidarioa, ekonomia sozial eraldatzailea... Eta azken aldian indarra hartzen ari den kontzeptua eta erreparatu behar zaiona, komunaren ideia da. Nire ustez alternatiba ezin da izan estatua, familia eta merkatua desegitea. Baizik eta komunaren ideia horrek zipriztindu behar du edo eragin behar du hiru esparruetan: komunaren ideia aplikatzen dugunean merkatura, hor agertzen zaizkigu erakunde ez kapitalistak, modu autogestionatuan kudeatzen direnak, gizarte mugimendu eta kolektiboen logikatik datozenak... Estatua birpentsatzerakoan, komunaren ideiak garrantzitsuak estatua ezin dela izan halako ente hierarkiko-meritokratiko-zurrun bat. Batzuetan badirudi pribatizazioaren kontra edo merkatuaren kontra estatua defendatzen dugunean estatu eredu klasikoa defendatzen ari garela. Eta nik uste estatu eredu klasiko horri ere eskua sartu behar zaiola. Komunaren ideiak iradokitzen digu eskalaz jaisten den estatu bat, parte-hartzaileagoa, deszentralizatuagoa, erabiltzaileen eta baita langile publikoen parte-hartze handiagoa daukana... Komunaren ideia familiara eramateak ziurrenik eramango gintuzke parekidetasun ideiarda, ardurak partekatzerara...

E. Apaolaza: Komunaren ideiarekin bat nator. Baina egungo eskema ez da agortu. Eskema hau hiru gordailu nagusi gisa ulertu daiteke: estatua, merkatua eta nik familiaren orde

komunitatea esango nuke (agian komunitatearen barruan sartzen da familia). Bakoitzean jartzen den osagai kopuruen arabera, harantz bilduko ditu beste bi gordailuak. Kontua da merkatuak (jarduera ekonomikoak, interes finantziero handiek) irentsi dituela beste bi gordailuen espazio-funtzio asko, batez ere estatuari dagozkionak. Eta gaur egun azaldu digutenaren arabera estatuaren funtzio nagusiena teorikoki izan beharko litzateke biztanle ahalik eta gehien ahalik eta onura gehien bilatzea, onura publikoaren arabera jokatzeko. Baina egun ez da gauza funtzio hori betetzeko, bere esparrua irentsi baitu merkatuak (merkatua gidatzeko ahalmena daukatenean, alegia), eta estatuaren zeregina onura publikoa bilatzea bada merkatuaren logikak onura pribatua lehenesten du. Planifikazio ekonomikoa (Ekialdeko blokeko kontu bat balitz bezala aipatzen den hori) estatu guztiek egiten duten zerbait da. Zeinen mesedetan egiten duten, hori da arazoa, onura publikoaren mesedetan ala merkatuan eragin dezaketen mesedetan soilik. Hiru esfera horietan, mugako espazioak dira interesgarriak: komunitatea eta estatuaren artekoa, ekonomia eta estatuaren artekoa, eta ekonomia eta komunitatearen artekoa. Espazio horietan batez ere nork eragiten duenaren arabera, era horrelako gizartea izango dugu. Komunitateari, ahalik eta onura gehien ahalik eta gehienentzat izan dadin bultzatzeko ardura dagokio une honetan, eskema horretan oreka berriak eraikiz. Eta badira esperientzia asko, baina horiek denak jostea falta da. Narratiba oso bat sortzea horren inguruan.

G. Julio: Esfera pribatua da indartsuena. Esfera publikoa koptatua du pribatuak, kontzertazio publiko-pribatuarekin. Gero eta eremu gehiago lapurtzen dizkio eta erabat kontrolatzea lortu du. Egundako estatu batek daukan indarra ez da duela urte batzuk zuena (Grezia da adibide garbiena), nahiz eta herritarron buruan baduen indar hori. Bada hirugarren esfera hori, nola izendatu ere ez dakiguna, oso txikia izan dena (gure herrian ez hain txikia) eta urte batzuetan beste mundu bat irudika dezakeena, beste leku batzuetan hainbat esparru baldintzatzea lortu duen bezala. Ados nago Apaolazarekin, intersekzio horietan dagoela joko. Eta komuna non gelditzen da? Nire ustez, beti ahanzten zaigu intersekzio bat: hiru eremuen artekoa, justu erdian geldituko litzatekeena. Eta niretzako komuna hori da. Hau da, ez da publikoa, ez da pribatua, ez eta komunitarioa. Denen intersekzioan dago eta inork ezin du koptatu, denona da eta aldi berean inorena ez. Komunitate errealarari dago lotua. Kontua da nola eraikitzen ditugun komunitateak, gure bizitzak beste era batera antolatzeke eta batak bestea sostengatzeko. Baina bitasun horiek gaintuz (publikoa-pribatua, lan produktiboa-erreproduktiboa...).

A. Santesteban: Ados, komuna zentroan jarri behar da, pentsatu behar da. Eta izan daiteke intersekzionalitate moduko bat, guztia egituratzen eta zeharkatzen duen zerbait. Baina Marina Garcések argi uzten duen bezala, “komuna ez da paradisua”, ez da guztia konponduko duena. Komunitatean bizitzea, elkarrekin bizitzea, problematikoa da. Komunak baditu bere arazoak, bere biolentziak, bere bazterketak, bortxa...

Azaldu duzue egungo eskema bera ez dagoela agortuta, baina komunaren espazioa handitzeko beharra ikusten duzuela. Zergatik, edo zer irabazteko?

A. Santesteban: Komunak balio dezake funtsezko kontu baterako: lan produktibo eta erreproduktiboaren arteko bereizketa gaintzeko. Egituratu dezake esparru bat, non lan produktiboak eta erreproduktiboak elkar elikatuko duten eta ez den sexu edo generoaren arabera egituratuko. Uste dut komunak eskaini dezakeela guztiok guztia konpartitzeko modua.

E. Etxezarreta: Bada mito bat, eta denok erortzen gara horretan: estatua vs merkatua. Hori da sozialdemokraziaren ideia, hau da, estatua hartzea merkatuaren kontrabotere edo kontrahegemonia modura. “Estatua indartuko dugu zeren horrek kontraboterea egingo dio merkatu deskarrilatu bati” esaten dugu... bada uste dut ezetz. Merkaturik ez da posible

estaturik gabe. Antropologiara jota, estaturik edo botere zentralizaturik ez daukaten gizarteek, ez daukate merkaturik. Estatuak eta merkatua, biak oreka ezberdinetan baina biak dira oso funtzionalak sistema kapitalistarentzako. Estatuak eta merkatuak dakartena da boterea jendearen eskuetatik urruntzea. Zer da irabazten duguna komunarekin? Feminismotik hartutako hitzetan, ahalduntzea, boteretzea. Jendeari itzultzea berea den erabakitzeke gaitasuna. Berdin estatuak eta berdin merkatuak urrunarazi duena.

E. Apaolaza: Niretzako, parte-hartzeaz hitz egitea baino askoz garrantzitsuagoa da beste gauza batzuek aritzea, ekonomiaz ari garenean. Zer nolako ekonomia nahi dugun, nolako jarduera ekonomikoak eta nolako egitura ekonomikoak aurrera ateratzeko gai garen... Horrek determinatzen du gainerako guztia, baita langileen parte hartzeko aukerak ere. Askotan ezkerria distraitu egiten da, esparru instituzionalera iristen denean itsutu egiten da gastu sozialarekin. Eta uzten du gainerako eremu guztia, ekonomia egitura nolakoa izango den, parte hartzea izango den ala ez, berau indibiduala edo kolektiboa izango den, enpresarien esku. Eta gastu soziala limosna bat da atzetik dagoen guztiaz ohartzeko bagara, hau da, egituraketa ekonomikoa bera denon mesedetan antolatu behar da. Horren segidan hitz egin dezakegu zer pisu izango duen ekonomia sozialak, zer jabetza eredu jarri nahi dugun erakunde horietan... Alegia, ekonomia finantzariatu baten alde egiten badugu (eta Euskal Herrian une honetan hori egiten ari gara), edo zerbitzuetara bideratutako ekonomia bat (horrek desberdintasunak areagotzen ditu), oso zaila izango zaigu ondoren hitz egitea ekonomia sozial benetan handi eta baldintzatzaile batez, edo langileen parte hartzeaz. Jarduera ekonomikoa demokratizatu behar dela esan aurreko estadio bat badago, jarduera ekonomikoaz, egitura ekonomikoaz hausnartu eta jabetu egin behar da herri edo komunitate bat. Ezkerreko ikuspegitik eta ahalik eta berdintasun handiena edo ahalik eta onurarik gehiena jende gehienari emateko. Gure kasuan, nik uste gizarte industrializatu bat izan garela eta horrek bere gauza onak ekarri dituela, nolabaiteko berdintasun bat, nahiz eta egia den gehiegikeriak egin direla eta une batzuetan bazterkeria mota batzuek bultzatzen direla. Baita ere egia da ingurumenarekiko oso erasokorra izan dela. Une honetan oinarri industrial hori bazter batera uzten ari gara, oso maila baxuko industria baten alde egiteko: langileen soldata baxuekin jokatzeko duen industria baterantz eta pisu nagusia zerbitzuetan jartzera goaz ("tertziarizazioa"). Ekonomia finantziarioak pobrezia geruzak handitu egiten ditu.

N. Elortza: Apaolazak esan duenari lotuta, uste dut askotan ez diogula bueltarik ematen egungo eskema eta logikari. Eraldaketa sozioekonomikoaz mintzo gara, beste eredu bat nahi dugu, beste ekonomia bat... baina ez dakit ez ote dugun erreproduzitzen ekonomia lehengo eskema beretan. Askoz etikoago, baina eskema beretan. Badakit industrian egindako bideak zerikasiaz eta ezagutzaz eman digula, baina beharbada errotik hasi beharko genuke planteatzen: zein izan beharko litzateke gure ekonomiaren oinarria eta ereduak? Eta zentratu beharko litzateke oinarriko gure beharrak asetzera, egun ez daudelako estalita; elikadura, etxebizitza... burujabetza integrala. Elikadura datorkit burura: askotan industria eta zerbitzuek aritzen gara hizketan baina ez dugu burujabetza bilatzen. Ikuspegi horretatik aztertu behar dugu, bestela, Mc Donald's bat egin dezakegu modu kooperatiboan eta irabaziak inbertituz inguruan, zerbait ezberdina egiten ari garenean sententzioarekin. Eta ez gineteke ariko zerbait ezberdina egiten. Kooperatibetan, esaterako, ahalegintzen dira gauzak beste era batera egiten, etekinak banatzen eta eskema demokratiko eta etikoen arabera jokatzeko, baina oinarrian zer produktu edo negoziotan oinarritzen da? Ikuspegi integral hori hartu behar dugu kontuan.

Nola eragin daiteke komunaren espazioa handiagoa izan dadin?

G. Julio: Proiektu politiko gisa landu nahi duguna da komuna edo hiruen arteko intersektio hori ahalik eta handien egitea. Baina horretarako baldintza bat behar du:

eremu pribatua kontrolatzeko ahalmena izatea (esfera pribatua txikitzea), publikoak bolumen handiagoa hartzea eta batez ere ekonomia komunitarioa eta dauden alternatiba txiki horiek egituratzen hastea. Nik uste horretarako bidea une honetan kontzertazio publiko-komunitario-kooperatiboa dela, trantsizio moduan bada ere eta bere arriskuekin. Saretu ekonomia komunitarioa, alternatiba bat bisibilizatzeko, eta publikoarekin batera indar egin galdu duen eremu hori berreskuratzeko. Nire ustez, bideetako bat hori da. Ahantzi gabe Elortzak esan duen moduan, alternatibarik eskaini ez diegun sektore horiek izan behar dutela lehentasuna: prekarietatearen kontrako borroka, erreproduzioaren eztabaida osoa mahai gainean jartzea... Alternatiba eraikitzerakoan, atzean gelditzen diren guztiak ekartzen ez baditugu, jai dugu.

A. Santesteban: Jordi Via eta Jordi Garcíak euren *Economia solidària per a una Catalunya lliure* liburu fantastiko horretan, planteatzen dituzte ekonomia komunak, trantsiziorako, izango lituzkeen hiru hanka: lehenik publikoa, baina publikoa birpentsatuta. Goitik beherakoa baino, parte-hartzearen bidez eta behetik gorako dinamiken bidez planteatu behar da publikotasuna, beste logika batzuetan. Bigarrenik, ekonomia sozial eta solidarioaren esparrua. Hor egituratu behar da produkzioa eta erreproduzioa egingo dituzten kooperatiben elkarteen sarea. Eta hirugarrenik, egon daiteke ekonomia misto bat: bertan pribatuak eta publikoak bat egingo dute, baina aurreko biak indartsuak badira, ekonomia mistoan ere ezarri ditzakegu ekonomia sozial eta solidarioaren irizpideak eta ez alderantziz, merkatu librearenak. Interesgarria egiten zait, egituratzen duelako komuna izan daitekeen hori.

E. Etxezarreta: Esan dezakegu egungo apustua dela esparru komunitarioa, ekonomia sozial eraldatzailea indartzea estatuarekin aliantzan... ados, baina esperientziatik ikusten dugu horrek ere badituela bere arriskuak. Ekonomia soziala bultzatzea izan daiteke estatua mehetzeko beste estrategia bat ere. Hori da *The Big Society*, laborismoak Britainia Handian egin duena: gizarte zibil antolatuaren mitoaren atzean estatua ahuldu eta estatu soziala desegin. Orduan kontuz, ea nori ari garen joko egiten. Pribatizazioaren debatean tentu handiz sartu behar dugu. Eta bigarrenik, alternatiba bakar eta onena ekonomia sozial solidarioa al da? Bada egun nahiko mundu heterogeneoa da. Herri honetan kooperatibismoaren esperientzia sendoa daukagu, baina ez da oso mundu heldua beste herrialdeetan, oso anekdotikoa da. Interseksionalitatearen ideia aipatzen zenuten, eta hori oso interesgarria da norberaren logika zipriztintzeko gainerako esparruetara, baina bueltako eragina ere badator. Adibidez, zer gertatu zaie kooperatibei Euskal Herrian? Kooperatibak zihoazen merkatua aldatzera baina merkatuak aldatu ditu kooperatibak. Gerta daiteke kooperatibismoa eta herri mugimenduak joatea estatua aldatzera eta estatuak aldatzea berauek. Arrisku horiek ikusten ditut, ezkerreko planteamendu batetik abiatuta eror gaitezke politika pribatizatzaileei joko egiten.

E. Apaolaza: Kezkatzen nauena da esperientzia alternatibo hauek denak oso bazterrean gera daitezkeela, nahiz eta leku batzuetan zentralitate pixka bat lortzen ari diren. Neurri batean gauza anekdotikoa dira, jarduera ekonomikoaren “formatu estandarraren” alboan. Kontua da nola lortu dezaket benetan eragin ahalmen bat. Ikusi besterik ez dago zer alde dagoen kooperatiben eta bestelako enpresen artean. Hor tarteko trantsizio figurak falta dira esperientzia hauen eta “formatu estandarraren” artean. Eta noski, honek guztiak behar du biltzen duen zerbait. Behar gorria da. Bestela, oso atomizatuta dauden esparruak dira.

A. Santesteban: Bai, momentuz oso bazterreko gauzak dira eta uste dut trantsiziozko figurak behar ditugula eta elementu ideologikoak ere indartu behar ditugula. Ez dakit den Apaolazak esaten zuen narrazio kolektibo hori... dena biltzen duen zerbait. Independentzia izan behar duen? Bada nik hala nahiko nuke, independentziaren diskurtsoa,

independentziaren ideologia lotzea elementu horiekin. Hori falta zaigu, alternatiba txiki horiek zerbaiten baitan biltzea.

G. Julio: Estatu bat nahi dugula esaten dugu etengabe, baina nolakoa? Hor eztabaida globaletan, bada figura bat proposatzen dena P2P Foundationetik, eta da Partner State-rena. Hau da, estatuak ekonomia sozial ereduak sustatzea eta erakunde bat eraikitzea komunitatetik datozen proposamenei bide emateko. Agian trantsizio forma bat izan daiteke. Ildo bateratzaile bat behar dugu, borrokak lotu eta eztabaida bideratu: nola sortu bitartekoak diren tresnak, estatu posible bat dugunerako baliagarriak izan daitezkeenak, eta aldi berean ikasteko ere balioko digutenak?

E. Etxezarreta: Beldurra ematen dit ez ote garen ari alternatiba inpossible bat irudikatzen. Trantsizio figurak behar ditugu, baina horien pisu guztia beste esparru komunitario honek eraman behar du? Adibidez, banka sektorearen alternatiba autoeraketaren bitartez planteatzea... hitz handiak dira horiek! Agian errazagoa da lehenengo fase batean banka publikoa diseinatzea eta herritarren kontrola berreskuratzen joatea. Eta bigarren buelta batean banka hori ahalik gehien deszentralizatzea, parte-hartzailea egitea eta abar. Energiak ere zalantzak sortzen dizkit. Atzean dauden interesei nolabaiteko kontraboterea eta alternatiba egiteko, agian pentsatu behar dugu pribatizaziorako eman zituzten pauso horiek guztiak atzerantz egitea... Santesteban, zuk aipatzen zenuen lan ideologiko baten beharra, esperientzia hauek guztiak bilduko dituen errelato bat, diskurtso bat, eta aipatzen duzu independentziarena. Hor beste eztabaida batean sartzen gara, hegemonia eta gauza horiez. Zergatik ez da jendea Goienerreko bazkide egiten? Oraindik ez delako elementu hegemoniko bat. Zerbait hain arrunta, hain onargarria izatea, hori da hegemonikoa. Independentziari ahultasunak ikusten dizkiot, baina autoeraketari sekulako potentziala ikusten diot diskurtso politiko-hegemoniko bat osatzeko, eta ez dago hain lerratua tendentzia ideologiko zehatz bati: zein ez dago berari dagozkion erabakiak beregain hartzeko aukeraren alde? Nire erabakiak nik neuk hartu nahi ditut. Hori da gure bizitzako esparru guztietara eraman behar duguna. Estatu bat ere egin daiteke autoeraketaren ideiatik, eta estatu hori behetik gorako eskema batean eraiki.

G. Julio: Adibide gisa datorkit European orain Varoufakisek-eta planteatuko duten eztabaida. Alegia, ez da estatu bati lotua, demokrazia galerari lotua da eta ia ia meme politiko bat da sortu dutena, galdu dugun demokrazia berreskuratzearen ideia, funtsean burujabetzaren diskurtsoa, baina Europa mailakoa. Nolabait globalagoa eta erabaki esparru horretan eragiten saiatuko dena eta gero jaitsiko dena estatuetara, eta gu estatu gabe gaudenez, ikusiko dugu nola egiten dugun. Era horretako meme politikoak ere sortu behar ditugu, zeren oraindik ez dakigu ardatza estatugintza den, independentzia den...

E. Apaolaza: Era batera zein bestera formulatu, burujabetzaz ari gara, ez? Estatu ez da egitura juridiko formal bat bakarrik, estatu bada, baita ere, komunitate batek bere etorkizuna bermatzeko bitartekoen gaineko kontrola izateko modua. Beraz, burujabetzaz ari gara.

Goazen adibideetara: komunaren ikuspegitik nolako erakunde publikoetarantz, nolako ekonomia praktiketarantz eta nolako herri mugimendu esperientziatarantz jo beharko genuke? Hitz egiten duzuenen zein adibide dituzue buruan (izan Euskal Herriko zein nazioarteko)?

E. Etxezarreta: Euskal Herrian adibide bat baino gehiago ditugu, bakoitza bere logika propioarekin garatzen joan dena. Mondragoneko kooperatibismoak izan duen garapena (bere eztabaida guztiakin, nazioarteratzeak ekarri dituen arazo denekin...), komunaren gainean eraikitzen den esperientzia (batipat industrial) da. Beste esparru bat ikastolen

mugimendua da eta euskalgintza, kulturgintza, irrati libreak... horien guztien oinarrian autoeraketaren ideia dago, ondoren aktibitate ekonomiko bihur daitekeena. Hirugarren esparrua ekonomia solidarioaren orbitakoa da: REASEk gorpuztu dezakeen sarea, balio jakin batzuen baitan funtzionatzen duten enpresak saretzea eta balio horien gaineko jarraipena egitea auditoria sozialen bidez... Sare hori behar bada oso bideratua dago lan merkatura sartzeko zailtasunak dauzkaten kolektiboen integrazioa. Eta betiko debatea da, zergatik ez da hori zerbitzu publiko bat? Zerbitzu publikoek bermatzen ez duten bitartean, sortu dadila komunitatetik.

N. Elortza: Integrazio esparruak publikatzeaz aritu zara, Etxezarreta. Gakoa iruditzen zait zerbitzu publikoak indartzea, jendarte osoari estaltzea oinarrizko beharrak. Hala ere, ez dut uste sistema publikoa dirulaguntza ematera soilik mugatu beharko litzatekeenik. Eta gaur egun horrela egiten da gehienbat. Uste dut esparru publikoak bermatu beharko lukeela gehiago integrazioa sustatzen duten eragileen arteko koordinazioa, lankidetzak. Integrazio integrala bilatu behar da, eta horretarako gakoak dira mugimendu komunitarioak. Sare komunitarioaren eta publikoaren arteko harremanaren lanketa sakona egin behar dugu

E. Etxezarreta: Aipatutako adibideetan ikusten denez, herri honetan badago ehun sendo bat. Auzolanaren mistifikazio berri bat egin gabe, baina baditugu mintz batzuek. Komunaren ideiak nondik jo beharko lukeen? Kontraesan politiko gutxien sortzen didan erantzuna hauze litzateke: merkatuak bereganatu nahi eta estatuak babestea lortzen ez duen esparru horietara jo behar luke komunaren ideiak. Adibidez, nazioartean (komunitate indigenetan, Italian...) potentzial politiko handia dute uraren aldeko mugimenduek. Ez dute gestio publikoa planteatzen, baina bai udal mailan kudeatzea uraren erabilzaileen parte-hartzearen bidez. Hor egon daiteke zirrikitu nagusia: estatua iritsi ez eta merkatuak bere egin nahi dituen esparruetan. Horren barruan, bi esparru nagusi identifikatu eta lantzen dihardugu azken aldian Gezkin: bata da zaintzen esparrua, zaintzaile kooperatibak sortzea. Hemen ere badira ereduak, Italiako kooperatiba sozialak, esaterako. Eta beste esparrua etxebizitzarena da. Denok behar dugu etxebizitza, eta merkatuak zer eskaintzen du? bizitza osorako hipoteka. Eta estatuak zer eskaintzen du? Zozketa bat. Etxebizitza komunitarioak zer ereduren arabera sortu, badugu hor ere zer landu.

E. Apaolaza: Hemen hezkuntza sistema herrikoi kooperatiboa sortu zen bere garaian eta mantendu da denboran. Lan elkartuko kooperatibak Euskal Herriko berezitasuna dira eta kooperatibismoari eginiko ekarpena, hau da, langileak bazkide izatea uste dut munduan ez dela beste inon gertatzen. Zer eremuri heldu? Energia berriztagarriak dira bat; oso demokratikoak izan daitezke eta egungo oligopolioan arrakalak sortu ditzakete. Energiaren kasuan, ziur asko ekonomia sozialari zabaltzeko eta demokratizatzeke momentu honetan dauden trabak horrexegatik dira: une batean energia oligopolioek ikusi zutelako gero eta ibilbide luzeagoa izango zutela, eta anekdotikoak izatetik "formatu estandarrerara" pasa daitezkeela. Horregatik jarri zaizkie trabak, horregatik daude ate birakariak politika eta energia oligopolioaren artean.

N. Elortza: Komunaren ideia garatzeko hiru esparru ikusten ditut argien: batetik Etxezarretak aipatutako herrigintzako mugimenduak, autogestio eta komunitate kontzeptuen baitan ari direnak: kultur taldeak, euskara, aisialdia, irrati libreak... bestetik, lan munduan mugimendu kooperatiboa eta sindikalgintza dira adibide oso indartsuak Euskal Herrian eta badago hauetan zer ikasi eta zer aintzat hartu. Baina nabarmendu nahi nuke hirugarren esparru bat, lan mundutik harago doana eta herriko sarearen indarraren adibide dena: besteak beste, nekazaritza eta elikadurarekin lotutako esperientzia berriak, kontsumitzaile eta ekoizleak elkartzeko dituztenak. Lehendik datoz kontsumo talde edo

kontsumo kooperatibak (Eroski bere garaian izan zen), baina ildo aldaketa edo lankidetzatza bat dakar eredu berri honek: ez du langile ikuspegia soilik lantzen, sistema osoa ikusten duen mugimendua da. Zer beste eremutan landu komunaren ideia? Lortu beharko genuke dauden eragile autogestionatuen sare indartsu bat, benetan egoera zailen aurrean erresilientzia erakutsiko dutenak. Gure betebeharra izan beharko litzateke komunitatearen oinarrizko beharrak estaliko dituen sare bat sortzea. Ez asistentzialismoaren logikarekin, baizik, ahalduntze kolektiborako esparruak sortuz.

E. Apaolaza: Elikaduraz aritu zara, Elortza. Oso garrantzitsuak iruditzen zaizkit ErriGora bezalako esperientziak. Elikadura eta herri barruko harreman ekonomikoetatik, joan direlako beste era bateko harremanak sortzen, eta apurtuta zeuden merkatu loturak sortzen. proiektio handikoa da, merkatu harreman egonkorrek eta trinkoek egitura sozial eta politikoak dakartzatelako atzetik.

A. Santesteban. Beste adibide bat izan daiteke Olatukoop: bere bueltan esperientzia kooperatiboak ari baitira saretzen. Edo denboraren bankuak... esperientzia kolektibo handia dago. Euskal Herrian berehala elkartzen da jendea eta erakunde bat egiten du edozertarako. Komunitateak badauka indarra. Hortik sortzen dira alternatibak.

G. Julio: Gustatzen zait jendearen konpromiso mailaren araberrako proiektuak sailkatzea. Konpromisoaren lehenengo maila, oso oso baxua, kontsumoarena da. Kontsumorako baditugu mila adibide: finantza erakundeak (Koop57, Fiare), energia (Goienar, SomEnergia)... eta sare hori jada egin beharko genuke, ez dakit zergatik ez garen egiten ari. Maila globalean eztabaidatzen ari gara plataforma kooperatiboaren ideia: hau da, plataforma ireki batean kokatzea horrelako alternatibak, jendeari bide horietara iristea errazteko. Baina konpromiso mailari begiratuta, gora eta gora egiten badugu, urgenteenak diren proiektuak juxtu bukaeran agertzen dira. Hau da, osasuna, zaintza... horiek dira konpromiso gehien eskatzen dutenak baina aldi berean beharrezkoenak. Badira ereduak, esaterako Europa Iparraldean etxebizitzaren inguruan dauden proposamenak, edo Italian zaintzakoak...

Jarri dituzuen autoeraketaren adibideetan zorrotzuz: sortzez autoeraketa ziren esperientzia horiek ibilbide luzea egin dute, eta batzuetan merkatuaren eta erakundetzearen logiketan murgildu dira. Autoeraketa bera nahikoa da komunaren ideia gauzatzeko? Edo zein oinarriri eutsi behar dio ekimen batek?

G. Julio: Aipatu ditugun adibide horietan guztietan, egia da ez garela ausartzen esatera askok bigarren buelta bat behar dutela. Oso erreferentzialak izan direlako, eta eredu garri. Olatukoopen uste dugu ereduak berritze bat behar duela eta horretarako muga batzuk jarri ditugu: esaterako, jabetza eta erabakitze ahalmena edo demokrazia ekonomikoa. Gardentasuna, hau da, kide guztiek atzipena izatea informazio osora eta autokudeaketarako baliagarriak diren baliabide guztietara. Eta komunitateak elkartasun pertsonal zein komunitarioa indartzea autonomian oinarrituta. Hau da, kontziente izatea bakarrik ezin dugula, lagunekin bai, eta horri eustea. Komunitateak gainera harreman onargarri bat izan behar du gizartearekiko: batetik, ondare komunera ekarpen bat egin behar du, eta bestetik, berarentzat nahi duen hori guztia gizarte osoarentzat lortzeko borondatea. Erakundeak bere barnean betearazi nahi dituen eskubide horiek guztiak gizartearentzako ere lortu nahi izatea. Berme horiekin langa goian jarri nahi izan dugu. Gazteleraz “ekonomia sozial eta solidarioa” dena guk “ekonomia sozial eraldatzaile” gisa definitzen badugu, hain zuzen da eraldatzaile izaerari eutsi nahi diogulako. Gure praktika ekintza proaktibo bihurtu nahi dugulako. Kostatuko zaigu eredu zentrala izaten, baina ekonomia sozial eraldatzaileak bizitza erdigunean jartzen duen bezala, gure nahia da

ekonomia sozial eraldatzailea ekonomiaren zentroan jartzea. Eta badago aukera hartzen duen eremua handiagoa izateko eta baldintzatzeko gaitasuna izateko.

E. Etxezarreta: Mondragon Taldearekin noski garela kritikoak, kritikatik ikasten dugu ikasi dugun guztia. Zein da komunaren ideari eusteko bermea? Mondragonen arazoa zein zen, balio falta? Agian ez, Mondragonen arazoa izan da agian ez dela gihar sozialik egon balio horien jarraipena egiteko, balio horiek betearazteko. Gakoa ez da hainbeste zer balio lantzen ditugun; balio horien atzean beti gizarte zibil antolatu bat egotea da premisa. Ez dago beste modurik. Munduko literaturarik onena egin dezakegu gure erakundeak beste mota batekoak direla esanaz, baina horiek jaiotzen dira, garatzen dira, hiltzen dira... eta bide horretan guztian tentsioa mantenduko duena gizarte zibil antolatua izan behar du. Edozein esparrutan: estatugintzan, merkatuan...

G. Julio: Baina gobernantza ereduak albora uzten dituenean eredu kooperatibotik datozen moduak, esaterako, korporazio bihurtzen denean, indar gutxi egin dezake gizarte antolatua. Kapitalismoaren logikan jokatzeko du erakundeak, eta berdin dio zenbat jende dagoen atzetik. Ordezkaritzan oinarritutako egitura bat jartzen denean goian, egitura hierarkiko bihurtzen da eta horrek gidatzen du egitura guztia. Berdin dio gizartean zenbat jende dagoen atzean, erabakigunea beste hori da eta. Bestelako ekonomia batek bermatu behar duena ez dira balioak, baina bai gobernantza eredu kontrolatua izatea. Hori da eskutatik alde egin diguna.

N. Elortza: Etxezarreta, guztiz ados nago gizarte antolatua dela gakoa. Julio, korporazioaren sorreraz luze hitz egin genezake, baina gobernantza eredu langileek edo norbanakoek gidatuko dute, beti ere antolatuta badaude. Zeren ikusi dugu zer gertatzen den oso indibidualizatutako kooperatiba bihurtzen direnean, pertsonak euren buruan bakarrik pentsatzen dutenean...

G. Julio: Orduan, balio arazo bat da?

N. Elortza: Ez, konpromiso arazoa.

G. Julio: Beraz, balio arazo bat ere bada, galdu dutela hor zegoen konpromisoa? Jendeak bere bizitza egitura ekonomiko baten barnean autokudeatzeko gaitasuna galdu du?

N. Elortza: Beharra dagoenean, pertsonak eta kolektiboak beharrei erantzuteko autoeraketa dira. Oso eskuzabalak izango gara, eta politikoki oso idealistak eta nahi dena, baina benetako beharrik sentitzen ez dugun arte ez gara antolatzen, bai kooperatiban, bai euskara elkarteetan... Ez da hainbeste balio galera izan, baizik, ongizate bat lortu dela, erosotasunean sartu dela eta horrek ahultzen duela autoeraketa eta indar kolektiboa.

E. Apaolaza: Autoeraketarekin erabat identifikatzen naiz, baina beldur naiz mito bat sortzen ez ote dugun. Autoeraketaren esperientzia momentu honetan normalitate izatetik nahiko urrun dago. Akaso hezkuntza da salbuespena. Baina industriari Mondragonek duen pisua izanik ere, Euskal Herriaren ekonomiaren %4-5 baino ez da kooperatiboa. Beste ekonomia sozialeko figura batzuk kontatuz, jarduera ekonomikoaren laurdena izan daiteke. Baina figuren aniztasunak eta batasun faltak bisibilitatea kentzen die. Ez da ekonomia soziala batasun bat bezala ikusten, eta horrek indarra eta eragin ahalmena murrizten die. Hori ez da normalitatea, inondik inora. Beraz, pentsatzen ari bagara autoantolaketatik eratu dezakegula gizarte osoa, momentu honetan urrun xamar gaude hortik. Lehen aipatutako trantsizio figurak dira inportanteak.

Erakundearen demokratizazioak berak zer pentsatu asko ematen du. Askoz inportanteagoa

da erakunde horiek, publikoak edo pribatuak izan, zerbaitetarako balio izatea gizarte osoarentzat eta ez bakarrik balio izatea gutxi batzuentzat. Ondoren dator zein ezaugarri dituen hobestea, kooperatibo eta demokratikoak adibidez.

E. Etxezarreta: Apaolaza, gustatzen zait parte-hartzea desmitifikatzeko egiten ari zaren ariketa. Parte batean baina, ez nago ados. “Ez da hain garrantzitsua pertsonen parte-hartzea, inporta duena da publikoa edo pribatua izan, ongi funtziona dezala ahalik eta jende gehiagori onura eman diezaion”, hori izan da zure argumentazioa. Eta niretzat hori guztiz lotuta dago, Marxek zioen bezala, ekoizpen baliabideen jabegoarekin. Edo jabego egiturak demokratizatzen ditugu, eta hori da parte-hartzea, edo bestela oraingo eskemara goaz: merkatuak noski primeran funtzionatzen duela aberastasuna pilatzeko, baina ea sortutako aberastasuna nork birbanatzen duen! Estatuak? Nekez. Gehienen onurarako funtzionatu behar duen erakunde batek (berdin zait publiko, pribatu...) zentroan demokraziaren ideia eduki behar du, parte-hartzearen ideia, autoeraketaren ideia. Ez diot ikusten beste modurik.

E. Apaolaza: Ziur asko bata bestearekin lotuta dago. Baina mitifikatzen badugu eta zentraltasun absolutua ematen badiogu parte-hartzeari, ahaztu egiten gara parte hartzea gauzatzeko espazio ekonomiko egoki bat sortzeaz, zerbait sortzeaz aberastasuna banatzeko eta ongi bizi ahal izateko.

E. Etxezarreta: Beraz, parte-hartzea beharrezkoa da, baina ez nahikoa.

Eta zein da benetako parte-hartzea, norbanakoena edo kolektibo antolatua? Ez ote doa arrakala handituz, gizartean parte hartu dezaketenen eta modurik ez dutenen artean?

N. Elortza: Iñigo Urkulluren azken aldiko adierazpenak datozkit burura: “Larritzen nau ardurarik gabeko mugimendu sozialek Katalunia baldintzatzea”. Gobernuak eta egungo ideologiak nahi duena pertsonak norbanako moduan aritzea da. Ez ditu ongi antolatutako pertsonak nahi, zeren horrek boterea dudan jartzen du. Gauza bera gertatzen da patronalarekin, langileen parte-hartzeaz hitz egiten du, langileekin banaka-banaka negoziatuz lortzen baitu berauek zapaltzea. Berdin gertatzen da aurrekontu parte-hartzaileetan eta halakoetan, ez dira erakundeak gonbidatzen, norbanako moduan gonbidatzen dira herritarrak. Gai hau gakoa da, eragileak oso garrantzitsuak baitira gizartean, baina ez dira erabakiguneetan nahi, indar antolatu moduan. Botereari ez zaio interesatzen.

A. Santesteban: Parte-hartzearen aurretik badago aurrebaldintza bat: prekarietatean bizi diren gero eta pertsona gehiago sortzen dituela kapitalismoak, eta sektore asko baztertu dituela sistematik. Parte-hartzean pentsatu baino lehen, aurre-lanketa hori egin behar dugu: ikusi behar dugu zein diren une honetan sisteman parte hartzeko zailtasunak dituzten sektore, pertsona... subjektuak. Zer egingo dugu lan esparruan ez dauden langile guztiekin? Horiei parte hartzeko bitartekoak jada asko gutxitu zaizkie, ez daude enpresetan. Zer egingo dugu paperik gabe edo ez dakit zein egoeratan iristen diren pertsonekin? Genero edo sexuari dagokionez, nola bermatuko dugu parte-hartze orekatua? Jatorriari dagokionez, beste hainbeste... Eta zein da subjektua? Aipatzen ari garen alternatiba hau guztia zeinek hartzen du, zeinek eramaten du aurrera, zeinek bizi du, zeinek defendatzen du, zeinek sortzen du presio egingo duen masa aktibo hori? Proiektu politiko edo alternatiba batek lehen subjektua askoz ere egituratuago zeukan, modernitatean ezarritako kategoria horiekin: langileria, nazioa... egun subjektua artikulatzeko ez digute kategoria horiek hainbeste balio. Balio digute zapalkuntzak identifikatzeko edo azterketa kategoria bezala: klasea, generoa, jatorria... Subjektibitate

politiko horiei guztiei erantzungo dieten kategoria berriak sortu behar dira. Ez dakigu zeintzuk diren, bidean sortu behar dira, ezin dira aurrez definitu...

G. Julio: Biharko mundu hori irudikatu behar dugu baina aurreko mundua ez da bukatu; hor dauden zapalkuntzek errelato bat harilkatzen lagundu digute. Niretzako klase borroka oraindik termino baliagarria da, galtzen ari garen borroka bat definitzeko bada ere. Baina badakit aurreko munduko kategoria bat dela. Biharko mundua irudikatzeko ez dugu aurreko mundua ahaztu behar: hor sartzen dira enpresen lan baldintzen salaketa, prekaritatearen aurkako borroka hauspotzea, erreprodukzioaren gaia mahai-gaineratzea, oinarrizko errenta eskuratzeko aldarrikapenak, parte-hartze ereduaren eztabaida mahai gainean jartzea, produkzio baliabideen jabetzan aldarrikapen erradikalak egitea edota enpresa ereduari buruzko eztabaida eta baita enpresen eraldaketak ere... Bi karril proposatuko nituzke: nola jarraitu aurreko munduari erantzun bat ematen eta jende hori inoiz ez atzean uzten; eta aldi berean, subjektua egituratzeko ekimenak burutzea. Zein da subjektua? Auskalo... baina Alternatiben Herria irudikatu ahal izan zena gustatu zitzaidan. Oso sentimendutik esaten dudan zerbait da. Ikusi zen indar bat badagoela eta gehiago izan gaitezkeela. Era horretako esperientziek emango digute bide bat.

E. Apaolaza: Horrelako esperientziek ez badute une batean helburu politiko zehatzik, eta ez badira modu politikoan agertzen, estatu bat edo estatu egiturak lortuz, esparru txikian geratzen dira eta gainera denborarekin puntxa galtzen dute. Horren adibide dira egun, esaterako, tokiko txanponak. Indarra galtzen ari dira. Zergatik? Ez dutelako gaintu fase nolabait deitzezaren sentimentala.

G. Julio: Hori da gakoa, nola egin? Alternatiben Herria bada niretzat subjektu eratzaile hori bideratzeko ekimen interesgarri bat. Kontua da nola lortzen dugun hori burujabetza, autoeraketa edo estatugintzara bideratutako ekimen bihurtzea.

E. Etxezarreta: Subjektuez eztabaida oso mamitsuak daude. Zeren ekonomia sozial solidarioa, herrialde batzuetan pobreen ekonomia bezala teorizatzen da, “gogoratu gaitezene jende prekarizatuaz, eta horiei ematen zaien bidea izan dadila balio batzuen gainekoa”. Eta beste batzuek aldiz, diote parte-hartzea aberatsen pribilegioa dela! Ez pobreen ekonomia eta ez aberatsen pribilegio, betikoa da, denontzat edo inorentzat ez! Horregatik iruditzen zait autoeraketa kontzeptu hegemonikoa: jende guztiarentzat balio du. Ni ez naiz prekariatuari irtenbidea eman behar dion estatua. Ni prekariatua naiz, eta elkarrekin autoeraketaren ideia landuko dugu, parte-hartzea, subjektuak sortzen joan... edo denak edo inor ez. Gainerakoan, jai dugu.

Mahaikideak

Gorka Julio Hurtado. Olatukoop, Ekonomia Sozial eta Eraldatzailea Sustatzeko Elkarteko kidea

*Errenterian jaioa, 1982an. Informatikako Ingeniari Teknikoa. Egun, Talaios Koope-
ratibako kidea eta aholkularitza teknologiko, ekonomiko eta soziala eskaintzen du.
Mondragon Unibertsitateko LEINN graduari irakasle ere bada.*

Arantza Santesteban Perez. Herri mugimenduetan aritua

*Iruñean jaioa, 1979an. Historian lizentziatua. Ekintzailea politikan eta feminismoan.
Besteak beste, Komunikazio parekiderantz Kazetarientzako Eskuliburuaren egilea da.
Azken aldian Ipar Hegoa fundazioan aritu da komunikazio lanetan. ARGIAko kolabo-
ratzailea ere bada.*

Naroa Elortza Gorrotxategi. ELA

*Arrasaten jaioa, 1983an. Ikasketaz ingeniari informatikoa, egun sindikatuan dihardu.
Aurretik, Mondragon Unibertsitateko Lanki institutuan irakasle aritu zen eta Bagara
elkartean abiatutako Ereindajan (kontsumitzaile eta ekoizleen elkarte) proiektuaren
koordinatzailea ere izan zen.*

Enekoitz Etxezarreta Etxarri. Gezki, Gizarte Ekonomia eta Zuzenbide Kooperatiboaren Institutuko kidea

*Donostian jaioa, 1981ean. Ekonomia doktorea eta Gizarte eta Kultur Antropologian
lizentziatua. Egun, EHUko Ekonomia Aplikatuko irakaslea da eta GEZKIn gizarte zer-
bitzuen esparruan diharduten eta sor litezkeen autoeraketa esperientzien ikerlari eta
bultzatzaile.*


Eñaut Apaolaza Amenabar. EKAiko partaidea

*Donostian jaioa, 1970eko hamarkada amaieran. Zuzenbidean lizentziaduna. Hainbat
kooperatiba eta herri mugimendutan lan egin izan du: EMUNen, Mondragon Unibersi-
tateko Lanki institutuan, AEKn, Ekai Center-en...*



Artikulu interesgarriak:

<http://opcions.org/es/blog/que-son-las-economias-transformadoras>



http://www.vilafranca.cat/doc/doc_62010754_1.pdf



http://www.economiasolidaria.org/files/paperak_ES_1_ReasEuskadi.pdf



http://www.economiasolidaria.org/files/ES_Paperak_5.pdf





Media:

Ekosfera:

<http://www.eitb.tv/eu/irratia/euskadi-irratia/ekosfera/3445534/4165666/kooperatibismo-eraldatzailea-eta-mindfulness-a/>



Info7 Fiare:

<http://info.info7.eus/2014/02/21/irasuegi-fiare-ez-da-alternatiba-unibertsala-baina-momentuko-egoerari-aurre-egin-diezaioke/>



Gure Bazka:

<https://youtu.be/sDCCy7lLFfw>



Emancipatiba:

<https://youtu.be/Y4OOG8NnxHg>



Bibliografia

Ekonomia Sozial Eraldatzailea

<http://urolakosta.hitza.eus/2014/09/18/benat-irasuegi-enpresa-baten-gardentasunak-bere-balio-positiboak-nabarmentzen-ditu/>

<http://www.tapuntu.eus/oinarrizkoa-da-eredu-eraldatzailean-lan-egiten-dugun-enpresa-elkarte-eta-kolektiboen-saretzea/>

Ekintzailletza

<http://etzi.pm/2016/01/ekintzailletza-soziala-kolektiboa-da-eta-tokian-tokikoa/>

<http://etzi.pm/2016/01/startup-eredua-ez-da-eredugarria/>

Udalgintza

<http://etzi.pm/2015/11/udalgintza-berri-baten-beharra/>

<http://olatukoop.net/wp-content/uploads/2015/06/ESEproposamena.pdf> (Olatukoop)

Kontsumoa

<http://etzi.pm/2015/05/kontsumoa-etorkizuna-eraldatzeko-tresna/>

<http://etzi.pm/2015/07/kontsumo-kooperatibak-erkiden-integratuak-baina-nola/>

Finantzak

<http://etzi.pm/2015/09/finantza-etikoak-burujabetzarako-tresna-izango-dira/>

<http://etzi.pm/2015/10/tokiko-garapenerako-tresna-finantziario-berriak/>

Eztabaidak

<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2439/benetako-parte-hartzea-enpresan>
(Hainbat egile)

<http://www.argia.eus/argia-astekaria/2497/nola-jabetu-herritarrak-merkatuak-eta-estatuak-urrundutako-erabakimenaz> (Hainbat egile)

Artikulu interesgarriak

<http://opcions.org/es/blog/que-son-las-economias-transformadoras>

http://www.vilafranca.cat/doc/doc_62010754_1.pdf